




Josefko Marin


ALDAKETAK ORDIZIAKO "PERIAN"

- ❖ — ERREPORTAIA ETA INKESTA ORDIZIAKO AZOKARI BURUZ: NAHIKOA LAN EMANGO DU BASERRITARREN PERIARI EUSTEAK.
- ❖ — HISTORIKOA: DISKA BANA KALERATU DUTE "POTROTAINO" ETA "DRINDOTS" BERTAKO MUSIKA TALDEEK. ENTREBISTA ETA KRITIKAK.
- ❖ — ELKARRIZKETAK: EMIGRANTE GINEAR BATI; LAZKAOKO GERRIKO LIBURUDENDAKOEI.
- ❖ — KOLABORAZIOAK: IDIAZABALGO GURE GARAIKOAK; OLENTZERO DELA ETA POLEMIKA; "AIDA, IDI!", EDO NEKAZARITZAREN BILAKAERA; 91.AK EKARRI ETA ERAMAN DUENA MUSIKA MUNDUAN, TB-IRRATI ETA ZINE ERRESEINAK, GASTRONOMIA, ESKUTITZAK, ETA ABAR, ETA ABAR.



Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



kutxa

• gipuzkoa
• donostia kutxa
•
• caja gipuzkoa
• san Sebastián
•

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

21. zenbakia. 92.eko Otsaila.

Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale.
1.800 harpidedun

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkarte". Dorre- etxea, behea (Correos azpia). Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Izena emango dizu GOIERRITARRA iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 889612 telefonora.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren diru- laguntza jaso du. Era berean, Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du azken bi kurtsoetan eta kurtso honetarako laguntzen zain gaude.

Dirulaguntzak eman dizkigute: Itsasondo, Idiazabal, Zerain, Arama, Altzaga eta Lazkao Udalak.

Dirulaguntzak agindu dizkigu-

te: Beasain eta Ordiziako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Erredakzio arduraduna: Jon Mikel Arano.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Iras-tortza, Andoni Sarriegi, Mikel Albisu, Mikel Leunda, Jon Arano, Jon Imanol Iturrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinez Agirre eta Nekane Altuna.

Kolaboratzaileak: Jexux Lete "Ibai-ertz", Ramon Ugalde, "Maiz-pi", Antton Berasategi, Emeterio Sorazu, Jokin Laso, Zeles Otamendi, Joxean Mendizabal, Koldo Zubeldia, Lierni Arrizabalaga, Joseina Etxeberria, Axier Menddi...

Gure eskerrik beroenak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen

diguten guztiei. Goierriko Udal laguntzaileei. "Zure- Argazki" eta "Fotoetxe"eri, Goimen, "Egunkaria", "Kutxa" eta Lankide Aurrezkiari. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa:

GERTU KOOP. E.

(Zubillaga Industrialdea. Oñati)

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Billaprankako Perie

Haurra jaio baino lehen guraso batzuek izena aukeratua izaten duten beza-la (Andoni, Ainboa...), nik ere, artikulua motx bati idazten hasi aurretik izenburua erabakita neukan

Billaprankako perie. Zergatik? Bada oso aspaldikoa ez den izen horrek niregan zerbait berezia sortzen duelako.

Ondoren izen aldaketa etorri zen (Ordiziako azoka), eta batek ez daki ziur izenarekin batera izana ere ez ote zitzaien aldatu. Seguru asko bai, baina ez naiz ni aldatu hori zertan den aztertzen hasiko. Nire asmoa gorago aipatu dudana "zerbait berezi" horretaz hitz egitea izango da, oroimenaren armiarma saretik oroipen bat edo beste jasotzea.

Peri egunez etxean postre berezia izaten genuen. Gazta ona edo goxokiren bat gutxitan falta izaten ziren gurean. Edota batzuetan postrea bezain goxoa izaten zen baserriko ogia.

Peri eguna bisiten eguna ere izaten zen. Asteazken askotan famili arteko arteko bat baino gehiago etortzen zen etxera bi-

sita egitera. Behin, Arantzazuko aldizkaria kobratzera etortzen zen frailea agertu zitzaigun. Halaxe, bapo jan eta edan ondoren berrikerian hasi zitzaigun, ea fraile ona izateko zer nolako baldintzak bete behar diren galdetuz. Guk jakin ez, noski, eta berak hauetxe aitatu zizkigun:

1. **Astoaren bizkarra.** Fraile onak bizitza honetan zama eta karga haundiak eramateko prest egon beharra daukalako.

2. **Tratalarien belarria.** (B) Gaizki esaka edo biraoka ari zaizkionean ere, fraile onak ezentzunarena egin behar duelako.

3. **Zerriaren aboa.** Behar bezalako fraile batek denetik, onetik bezala txarretik jan beharko duelako. (Hala ere, aitortu beharra dago guzti hori esan eta gero wiskya eskatu zuela bazkaria goxatze-ko...)

Udaletxeko arkupea ere maiz etortzen zait gogora. Batez ere hara biltzen ziren artzainak eta arkume jostalari haiek. Gainera hango pisua ere ezin ahaztuko dugu ba. Makina bat alditan pisatuta gaude gu han, mutil koxkorretan eta gerora ere bai,



soldadutzara joateko eta (eskerrak oraindik ez garen joan).

Bai, asteazkena euskal sena (edo dena delakoa) indartzeko egun aproposa izaten zen. Eta oraindik orain, irratiz aitatzen entzuten dudana bakoitzean, edonon nagoela, poztu egiten naiz. Eta pozten naiz aurreko oroipen horiek eta gehiago ere gogoratzen zaizkidalako, eta baita *perie* bera gutxitan ikusten dudalako ere, azken batean urrutitasunak beti ematen digu nostalgia punttu bat.

Patxi Zubizarreta

Lana

✓ **"Otsaila" itzulpen zerbitzua.**
Edozein motatako testuak itzultzen ditugu. Lau hizkuntzatan: Frantsesa-Ingelesa- Euskara-Gaztelania. Gure helburua entrepesa, denda, eskola, instituzio publiko nahiz pribatuei itzulpen lan zerbitzu egokia eskeintzea da. Urdaneta, 18. Tlf.: 889325. 20240 Ordizia.

✓ **Emakume bat ofrezitzen da etxeko-lanetarako ordu batzutan.** Ordizia/Beasain. Deitu 888795ra.

✓ **Neska batek egingo luke lan,** esterna gisara, 30 urte, esperientziaduna. 885956 tfna.

Salmentak

✓ **Ume-kotxe-xilla salgai,** "Konfort" marka. 1500 pzta. 887201.

✓ **Ford Fiesta Pacha berria salgai.** Edozein ordutan dei 882396.

✓ **HIFI ekipoa,** Sharp 100 w, pletina bikoitza, sintonizagailu kasik automatikoa. 887332, Jose Luisgatik galde.

✓ **Dyan 6 bat, SS-M, salgai.** 801713ra dei gaueko 7etatik aurrera.

✓ **Berogailu japoniarra,** kerosenozkoa, erdiprezioan, oso gutxi erabilia. 692712, Aizpurua

Etxebizitzak

✓ Etxebizitza **salgai Beasainen,** egutera, 83 m2. 885959-161008 tfnak.

✓ **Pisua salgai Lazkaon,** 3 gela, sala, komun eta sukalde. Jantzia guztiz, aideatua. 884028.

✓ **Aukera bikaina:** pisu merke-askoa salgai, obraren beharrea dago. Dei 889946ra.

Urtebetetzeak:

✓ 1764. urtean jaio zen Fernando Amezketarra.

✓ Jose Inazio Gerriko 1740. urtean jaio zen Seguran. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, "Kristau Doctrina guztiaren esplikacioaren sayaquera, euscarazko platica edo doctrinetan partituro", bera 1824.ean hil ondoren argitaratu zen (1858.ean). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainiarazko itzulpena eskatzen zioten...

DEI BAT LAZKAOKO JENDEARI:

Lazkaoko EHE duela bi urte t'erdia hasi zen funtzionatzen eta orain arteko gure lana nahiko positibotzat jotzen dugu. Arazo bat dugu: horrenbeste lan egiteko jende gutxi gaude taldean.

Gure helburua espainiarrak Espainian, frantsesak Frantzia edo txinarrak Txinan dituzten garrantzia eta statusa Euskarak Euskal Herrian izatean datza, norabide horretan markatuz gure pauso guztiak. Beraz, laguntzeko prest zaudetenak agertu astear-

tetan gaueko 9,30-etan "Gerriko" tabernara. Gure helburuek aurrera eraman ditzagun, guztion laguntza beharrezkoa dugu. Anima zaitezte!

Gerora begira gure asmoa ildo beretik jarraitzea da, jendea kontzientziaztea eta euskarari dagokion maila eta statusa ematea. Horretarako jorratu beharreko bidea luzea eta oztopoz bete da izango dela badakigu, baina etsitzeko asmorik ez dugu eta denon laguntzaz aurrera egingo dugula koan gaude. Euskaraz eta kitto!

BEASAINGO UDAL ORDENANTZAK

Euskararen erabilpena sustatzeko Ordenantzak bi zatit nagusi ditu: Udal-barneko funtzionamenduari zuzendua bata eta Udalerriko bizimoduari dagokiona bestea. Udal-barnera begira dauden Ordenantzen hamairutatik hiru puntutaz mintzatuko gara.

1. Lehen puntuan, Udal-eskumenpeko langileen euskarazko prestakuntzaz hitz egiten da. Guzti hau garatzeko, 5 urterarako plangintza prestatu du Udalak, HAAEE/IVAPekin hitzarmen bat sinatuz. Plangintza honen arabera eta lanpostu bakoitzak bete behar duen hizkuntz perfila onartu ondoren, derrigorreztasunezko epe batzuetan onartuak daude, langileak bitarte horretan euskarazko prestakuntzan jardunez. Honela, Otsailetik aurrera, 10 langile maila ezberdinetan euskarazko prestakuntzan murgilduko dira.(...)

2. Barruko Bulego, zerbitzu eta Sailen funtzionamendua ere arautzen du Ordenantzak, epe ezberdinak jarritik, berehala bete beharreko helburuak, epe ertainerakoak eta epe luzerakoak markatuz. Horrela, berehala betetzeko eskakizunari kasu eginez, Zerbitzu eta Sail bakoitzeko erreallitatea ezagutu beharrea gaude, ondoren

hizkuntz politika bat eta lehentasun batzuetan prestatzeko.

Aipatutako bi puntu hauen garrantzia ulertzeko, Administrazioak eta Udalak herrira begira duen eragina ezagutu behar da, Udal erdaldun batek herrian Euskararen presentzia eragotzi egiten bait du. Hemen doaz gure momentuko ahalegin nagusiak.

3. Hirugarrenak, Erakunde Ofizialekin mantentzen diren harremanak arautzen ditu, Udaletik ateratako dokumentuak, gutxienez ere euskaraz joan beharko bait dute. Udalak jaso behar dituen buruz, idazkiak euskaraz jasotzeko exigentzia luza dezake, honela, erdaraz jasotakoak automatikoki bueltatuz. Hau honela izateko, Euskara-Batzordeak erabakia hartu berria du.

Batzordeen bilkurak, Erregistro, Akta eta gisakoak, inprimakiak, idazkiak, kaleko seinaleztapena, bandoak, komunikabideetan ematen diren berriak e.a. ere arautzen ditu Ordenantza honek. Hizkuntz politika bat prestatzeko ekingo diogu, Udal barruan euskararen erabilpena sustatzeko lanean.

Euskara Batzordeburuak

ORDIZIA/BEASAINGO GOARDIAKO FARMAZIAK

Otsaila: 1-2: Atorrasagasti; **3:** Cuesta; **4:** Arriola; **5:** Urbizu; **6:** Atorrasagasti; **7:** Azpilikueta; **8-9:** Urbizu; **10:** Jauregi; **11:** Laumaga; **12:** Cuesta; **13:** Arriola; **14:** Urbizu; **15-16:** Jauregi; **17:** Atorrasagasti; **18:** Azpilikueta; **19:** Jauregi; **20:** Laurnaga; **21:** Cuesta; **22-23:** Azpilikueta; **24:** Arriola; **25:** Urbizu; **26:** Atorrasagasti; **27:** Azpilikueta; **28:** Jauregi; **29:** Laumaga;

IDIAZABAL KIROL ELKARTEA


XII. Herri-krosa Otsailak 2an. Goizeko 11etan umeentzat eta 12etan helduentzat.

Mendi saila: Otsailak 16: A+ana-Gesaltza (Araba). Martxoak 1: Bedaio-Balardi.(egun osoko ibilaldiak).



Udaletxea	80 10 64
Parrokia	80 10 85
Mediku Etxea	80 11 73
Kultur Etxea	80 10 99
Farmazia	80 12 25
Jubilatuen egoitza	80 02 18
Herri Eskola	80 17 26
Pelota Lekua	80 04 74

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



889612.

GOIERRITARRA

Etxean jaso nahi dut

**Nik ere
harpidedun
izan nahi dut**

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA:

HERRIA:

TFNOA:

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali
DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT
UDALEI ESKER

Intereseko Telefonoak

Orokorrak

Zumarragako Eritetxea	721614
Donostiako Erresidentzia	453800
Gurutze Gorria	272222
DYA	464622
SOS Deiak	088
Eguraldi informazioa	094
Errepideen egoera	288888
Ertzantza (Beasain)	887350
Suhiltzaileak (Ordizia)	881362
Renfe (Beasain)	880853
Sarasola Garraioak	880710
Pesa Garraioak	880668
Estellesa	452949
Itxaropenaren tfna	458005
HIES-SIDARI buruzko tfna	282666
Toxikologia inform	912620420
Alkoholiko Anonimoak	276618
Goierri Lanbide Eskola	880062
Maizpide Euskaltegia	889231
Goiztiri AEK	889174 / 889340
Segura Irratia	801041 / 801341
Arlote Irratia	888093

Arama

Udaletxea	888953
Telefono publikoa	880739

Ataun

Anbulategia (S. Martin)	881025
Udaletxea	881011
Anbulategia (S. Gregorio)	881251

Beasain

Anbulategia	880759
Alkartasuna Lizeoa	887191
Hotel Urteaga	880850
Larrialdiak	880967
INB	880753
Loinazpe Ikastetxea	882644
Udaletxea	885900
Udal Euskaltegia	889094
Udaltzaingoa	881355
Zaharren Egoitza	884804
Taxiak	880367

Ezkio-Itxaso

Udaletxea	721303
Telefono publikoa (Ezkio)	720267
Telefono publikoa (Itxaso)	880315
Gasolindegia	721717

Gabiria

Udaletxea	880734
Telefono publikoa	881384

Gaintza

Udaletxea	889564
Tfno. publikoa	880274

Idiazabal

Anbulategia	801173
Udaletxea	801064
Eskola publikoak	801726

Ikaztegieta

Udaletxea	653329
-----------	--------

Itsasondo

Udaletxea	881170
Eskolak	887704
Mediku etxea	881359

Lazkao

Udaletxea	886408
Anbulategia	882632
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800

Legerreta

Udaletxea	806225
Eskolak	806014
Izarra ostatua	806044
Taxia	806170

Mutiloa

Tfno. publikoa	801166
----------------	--------

Olaberria

Udaletxea	889193
Eskolak	881232
Castillo Hotela	882011
Tfno. publikoa	881111

Ordizia

Udaletxea	885850
Anbulategia	880967
Eskolak	882780
Kontsumitzaileen Bulegoa	881642
Kultur Etxea	881280
Gaztetxea	888092
Oianguren BIN	880862
Suhiltzaileak	881362
Udaltzaingoa	884005
Taxiak	881486
Zaharren Egoitza	888377



Ormaiztegi

Udaletxea	882660
Anbulategia	888432

Segura

Udaletxea	801006
Anbulategia	801919
Eskolak	801776
Igerilekuak	801775
Aingeru Zaind. Aterpetxea	801010
Hospital	801008
Segura Irratia	801041
Taxi	801170

Zaldibia

Udaletxea	880357
Anbulategia	880027
Eskolak	884521
Etxabe Autobusak	884105

Zegama

Udaletxea	801115
Anbulategia	801351
Eskolak	800042

Zerain

Udaletxea	801724
Medikua	801136
Telefono Publikoa	801183

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEIAR

KRISTALDEGIA

Erakiri eta merkatalguneen
Kristal ezarretza - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN

UTOESKOL
ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240-ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02

20200 BEASAIN



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA




Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 BEASAIN

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Telef. 88 05 43 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

▼ Kizkitzako Amabirjina

Udaleko zenbait traste zaharren artean agertu zaigu, eta zuen interesekoa izan daitekeela iruditu zaigunez, honekin batera igortzen dizuegu orritxo horren fotokopia. Agur.

Ezkio-Itsason, 1991-10-25.

Zeles Otamendi.



▼ GOIERRITARRAri

Agur on adiskideok!

Uste dut urtebete badela zuen aldizkaria bidaltzen didazuela dohainik eta txintxo. Bejondeizuela eta eskerrik as-

ko! Konturatzen naiz egiten ari zareten lana ez dela askotan gehiegi eskertua. Nire aldetik, har ezazue ezaugarri apal honen bidez esker maitekorra!

oan zen urtean zenbait "flax!"-salaketa egin zenuten; eta hauetakoa bat Gaintzako eliz-paretan zegoen San Migelen harritzko irudi borobil bat zen. Gaur ez duzue han aurkituko. Barruan jarria dute eta oso egoki gainera. Baduzue beste zenbait "flax!"-salaketa, Zaldibian-eta, baina oraindik ez da iritsi sobrare "garaia" hauentzat. Salatzea ona da, batzuek "espabilatu" gaitezen.

Inoiz zerbaitetan laguntza eman baneza, zuek eskatu. Urte emankorra eta gozoa opatuaz, esker onez,

*Emeterio Sorazu
Zaldibiako Apatza)*

Kaixo lagunok:

Jaioterritik kanpo bizi arren (edo horretxegatik hain zuzen) saiatzen naiz, nire egin beharrak uzten didaten neurrian, Goierni-aldera ahal dudana bezain sarri joaten; ez, hala ere, nik nahi beste. Eta azkenaldi honetan, joan izan naizen bakoitzean, GOIERRITARRA-rekin topo egiteko aukera izan dut. Eta atsegina gertatu zait (benetan esaten dizuet) aukera horretaz baliatu izan naizen une bakoitza. Eta nola "harpidedun" egiteko aukera ere ematen duzuen, bada ezin inolaz ere alferrik, galdu aukera hori.

Ordainez, eta harpidetza dohakoa denez gero (denak horrelakoak balira...) ezinbestekoa iruditu zait bertso kaxkar batzuk, besterik ez bada ere, zuei eskeintzea, "Egun da santi mami+a"-ren nahiz beste edozein doinurekin kanta ditzazuen, eta argitaratzeko modukoak direla baderitzozue... Tira, nahi duzue-na egin.

Eskerrik asko lagunok, eta nahi duzuen arte.

Jokin Lasa (Deba)

Aurrera GOIERRITARRA

1. Gure Goierni zaharra omen zegoen iharra, eta hara non botatzen digun mundura GOIERRITARRA.

Errepika:
Aldizkari atsegina,
Goierrin bertan egina,
antzeko asko badago ere
ez da beste bat berdina.

2. Nahiz ta oraindik kaxkarra, ari da hartzen indarra. Utziez gero haziko haiz, bai, hi ere GOIERRITARRA.

Aldizkari...

3. Aitonak makur bizkarra, oinak, berriz, tirri-tarra, esku batean makulua ta bestean GOIERRITARRA.

4. Gure haurraren negarra! Hori da ume zakarra! Inork ekarri ez duelako etxera GOIERRITARRA.

5. Eme izan edo arra, berdin tentel zein azkarra; zu gustokoa ez zaituenik ba al da, GOIERRITARRA?

6. Umorea parra-parra. Sarritan gordin samarra: bizitza ere hala da eta hala da GOIERRITARRA.

7. Zer duen niretzat txarra? Gauza bat bakar-bakarra: Deba aldera ez dela heltzen tamalez, GOIERRITARRA

8. Utziko nuke bizarra, nahiz eman gizon zatarra, ene etxean hartzagatik korreoz GOIERRITARRA.

9. Izanez gero beharra bota lasai deiadarra. Eskerrik asko lagunok eta AURRERA GOIERRITARRA!!!



GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA

88 96 12

*Irakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarra*

Olentzerori buruzko hausnarketak (edo usadio zaharrari bere hartan eutsi beharraz)

Urruneko mendeetako tradizioetik datorkigun Olentzerok ez digu aurtan ere Abenduko hogeitalauko zitara hutsik egin. Etorri, ordea, Bizkaiko ikastoletako hainbat ardura-dunek gaztigatu zigutenez, bestelako itxuraz etorri zaigu: ukitu erakargarri eta fantastikoagoz jantzi eta apaindurik. Itxura-aldaketa horren arrazoiak haxe bide da: Gabonetako beste pertsonaia mitologikoe-kin alderatuz (Papa Noel, Santa Klaus edo Erregeekin alderatuz), gure pertsonaia, Olentzero, ilunagoa omen da, eta ez omen du haurrengan besteek hainbat lilura sortzen.

Nik ez dut ikastoletako jendeak Olentzeroren ego-kitze horretan jarri dituen asmo on eta jatorrez duda txikiarik ere egiten. Areago, inork senperrenak egin baditu Olentzeroren tradizioa jendartearen hedatzeko, ikastolak egin dituela sinesten dut irrimo. Nolanahi dela ere, asmo onak eta zuhurtzia ez dira beti esku-lik joaten eta, zenbaitetan, elkarrekiko etsaiak izan daitezke biak. Asmorik onenek eraginda ere, egokitzearen egokitzeaz, Olentzerori buruzko benazko tradizioa hankaz gora jar daiteke eta, hori dela medio, Olentzeroren benetako funtsaz erreflexio zintzoa egiteko gonbita izan nahi dute lerrook.

Nik dakidala, 1.970-ko hamarkadan egin zitzaion Olentzerori lehenengo egokipena. Guk ikasitakoaren arabera artzai edo ikazkina besterik ez zena, opari eta erregalia partitzen jarri genuen. Ezaguna zitzaigun tradizioari eusten nahiko lan ez bailitzan, hara non hemengo sasijakutun batzuk Erregeak ez baizik Olentzero zela gureagoa esan eta Eguberrietako erregaliak harek ekarri behar zizkigula erabaki zuten. Olentzero ala Erregeak ote diren gureagoak eztabaidatzea, oiloa ala arrautza izan ote zen lehenengo erabakitzea bezain eztabaida antzu eta bizantziarra iruditzen zait. Zeren eta, norbaitzuei gustatu ala ez gustatu, Erregeak zein Olentzero, biak ala biak izan dira gureak. Erregeen besta ere sentimenduetan txertaturik dugu euskaldunok. Izan ere, Erregeengandik jaso baititugu opariak urte luzeetan, eta, gaur egun ere, halaxe jasotzen dituzte baserriak gehienetan (denetan ez esatearren). Honetaz ari naizela, iragan asteen, Eguberriak zorionduz, Euskaltzaindiak bidali zidan postalean Lekeitio-ko elizako erretaula agertzen zen, 1511-koa, eta bertan Erregeen Adorazioa ikus daiteke. Beraz, ez da atzo goizekoa Errege Magoekiko (Magoekikoaz eta ez besteekikoaz ari bainaiz hemen) gure tradizioa. Baina, bego horretan Olentzero jostailu banatzailearen ohitura berria ere, geroak epaituko baitu



asmatu ala hanka sartzen ari garen. Hala eta guztiz ere, nire aburuz, Olentzeroren "lanbide" berriak sin-esgarritasun gehiago izan dezan, Abenduaren hogeitalauan eta une jakin batean bakarrik erakutsi beharko genuke Olentzeroren irudia, eta ez aste batzu lehenago (dendetako erakusleihoetan, aurrezki kutxetan, eskoletan...), erakusten den bezala. Olentzero nonnahi eta noiznahi ikusten segitzen dugunein, akabo harengandik datorkigukeen lilura. Kontutan izan, bestalde, Erregeak gau bateko lipartxo batean bakarrik ikus ditzakegula, eta iheskortasun horrexek sortzen ditu bai majia eta baita sin-esgarritasuna ere.

Oraindik oraintsuago, politikaren zurrumbilo nahi-asiak aurrekoa baino egokipen bortitzago bat eman nahi izan zion Olentzerori. Zer esan horretaz? Bada, ondorengo gogoeta hau. "Hator, hator mutil etxera..." gogo-bihotzez aldarrikatu behar dugu bai, baina, hala ere, ez al dituzte txerri-belarriak eta txahal-muturrak nahasten Olentzero gizarajoa Gabon egunean kaiolan giltzapeturi eramaten duten horiek? Zer bekatu-demonio erantsi nahi diote "Jesusen berri ematera" etorri denari, horrela, erotean perotean, urtero barrotepean kaleratzeko? Nik ere "ez, ez dut nahi... zibilizazio hori" kantaren mamia barneratzen dut, baina zibilizazioa aldarazteko uneak ezezik, eiteak eta moduak daudela dakusat garbi. Gabon gaua, ene iritzi, ez da manifestazio eta ka-lapitetarako unerik egokiena (urteak beste 364 egun

baditu eta!), eta hori, besteak beste, bi arrazoi hauengatik: lehenengo, Olentzero erlijio jakin bateko errituei estekaturik agertzen baita euskal tradizioan eta, erlijio horren sinestunak errespetatuko badi-tugu, inork ez baitu eskubiderik haien besta-modue-tan muturrik sartu eta errotik erauzteko; eta, biga-ren, uztartu ezinak baitira Olentzerori buruzko be-netako tradizioa eta orain Olentzerori atxiki nahi zaizkion abertzale-papera edota herri honek pairatzen dituen traumen askatzaile-sinbolo papera. Olentzero jaio zen garaian ez baitzegoen aberri-rik, eta ez bendiziorik ere. Olentzero ez baitzen inongo aberri askeren albistea ekartzera etorri, bestelako berria iragartzera baizik.

Bi hitz aurtan Olentzerori eman dioten jantzi berri dotoreaz. Mendeetako zikinak ezin izan du jan gure Olentzero, eta oraingo garbitasun-ikuteak gaitzeko bidean jar dezakete. Kraka, tortika eta kiratsa izan ohi ditu ikazkin maitagarri orok, eta lanbide horretako inpekable jantzirik eta kolonia usain gozoz lurri-neztaturik azaltzen bazaigu, agian iruzurti-planta hartu eta batere ez diogu sinestuko.

Denok dakigunez, Olentzerok menditik ekarri zuen gose zaharra asetzeko herrira jetxi eta lukainka, oi-lasko, txerri eta, nik al dakit zer gehiago, jaten zi-tuen. Orain, ordea — zergatik ez beste irudi xar-mangarriago bat eman Olentzerori? — tentuz eta neurritz jateko esan beharko genioke, modernotasu-nak ez baitu gizaki tripaundi eta salo malapartaturik maitatzen. Modernotasunaren izenean, lotsa pittin bat sentitu beharko genuke agian gure tripazain ar-lolearen aurrean eta, kasurako, Olentzero garai berrietara egokitzeakotan, "Usurbeko arroketan" mau-ka-mauka jaten eta ardo-zahagi bat edaten paratu orde, Rubioren jatetxera eraman beharko genuke modu fin eta delikatu bere sabela berdinean. Nik, ordea, bistan denez, ez diot Olentzerori horre-lako txukundurik eman nahi.

Azkeneko parrafoko bromatxo laga, eta serioxeagoa dena haxe duzue: bakea iragartzera etorri zitzaigun (eta urtero datorkigun Olentzerori ez diogu guk honezkero bakerik eman nahi. Ez dugu jadanik izan den eta den bezalakoxea onartu nahi. Egokipe-nak egin nahi dizkiogu Olentzerori, bera berez guz-tiz egokia dela ahantzirik. Guztiarekin ere, badut it-xaropenik: bai baitakit Olentzero "entendimentuz jantzia" dela, eta, beraz, guk arriskutan jar badeza-kegu ere, berak bere burua salbatuko duelakoan bainago.

Xabier Gartzia.

ondoeta

ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO



FOTOETXE

— **Berri mingarria.** 1991 hiltzearekin batera utzi gintuen On Joxemiel Barandiaranek. Titular handiak eskaini zizkioten egunkariak berri horri eta heriotz horrek markatu zituen Eguberriak. Julio Caro Baroja antropologoak esan du: "Politikoei Joxemiel Barandiaran beren helburuen arabera kapitalizatu nahi izan dute eta berri buruz mintzatu diren askok eta askok ez dute bere lana batera irakurri eta ezagutu".

— **Jakintza Dantza Talde** ordiziarrek urte asko daramatza E.H.-ko dantzak mantentzen. Iazko abenduaren 25, arratsaldean, euskal dantzen ikuskizun bat eman zuten. Herriko ekintzetan parte hartzeaz gain, Ordiziatik kanpora ere irteera ugari eginak ditu. Orokorrean, dantza talde hau neskez osatua izan da, nahiz eta garai batean taldea mixtoa izan. Hala ere, azkenaldi honetan mutil gutxi batzuek animatu omen dira eta ez dute etsi nahi berriro lehengokoa lortu arte. Joan den urtean koreografia egiten ausartu ziren, dantza berri bat asmatu nahian. Dantza berri horrek arrakasta handia izan duenez ikuslearengan, bada, aurrerantzean horretan jarraitzeko asmoa dute. "Xori-dantza" izeneko dantza berri horrek Euskal Herriko dantzen pausu desberdinak biltzen ditu.

— **Osoro oker** geunden azkenengo alean, arrazoi du Beasaingo Alkate J.ak. "Egin"en irakurri genuen. Informazioak "Gogor" aldizkariaren omen ziren. Beasaingo Futbol-zelaiko tribuna berriak 50 milioi ez baino 19 milioi eskaseko aurrekontua omen du. (Bestalde, kanpo-igerileku berrikuntzak 83 milioi eramango omen ditu. Ezkiaga auzoan, berriz, 80 milioitik

gorako inbertsioa dihoa hirigintza plan batean, frontoi estalian 60 milioi gastatuko direla eta beste 20 milioiak auzoko hirigintza lan guztietarako atalen bati hasera emateko). Udazken Kulturala"ri buruzko kritikaren aipamena atera genuen halaber. Ez, ordea, ekitaldi horren berririk. Hilabete-kariaren maiztasunetik hamabostekari-kora pasatzeko eskea geuk egiten dugu lehenik. Kontuzago ibiliko gara.

— **Soldaduzkari** iruzur egiteko tarifa 600.000 pezetakoa omen. Bitartekariaren esistentzia vox populi da, ezagunak dira herri gehienetan bai baitaude. Esate baterako, Amezetako gazteen %5a besterik ez omen dira soldaduskara joaten. Gaisotasuna alegatuz libratzen dira. Nerbioak direla eta libratu ziren baten batzuk laguntzen dute aidanez, beren esperientzia erabiliz.

— **Espainiako Abiadura Handiko Trenaren** lehenbiziko bagoia egin du Beasaingo CAF enpresak. Kotxe hori iazko abenduaren 19an irten zen beasaingar lantegitik Toledoko Lasagrara, bertan gainontzeko kotxeekin lotu eta Madril-Sevilla trenbidean orduko 300 kilometroan ibiliko diren trenak osatzeko. CAF Fabrika Handiak 12.000ko kontratua dauka AHTren kotxe guztiak egiteko.

— **91ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren** finalera iritsi ziren Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua bertsolari goierriarrak. Murua seigarren gelditu zen eta zortigarren Mendizabal.

— **GOIERRITARRAren** lehen zenbakian (89ko azaroa) "Zer dugu Goierriko

herrien arteko garraio publikoaren pulamentu kaxkarraz?" galdera egin genion Kepa Kortari. Haren erantzuna: Ataundik Zaldibiara joateko 2-3 autobus konbinatu behar dira. Diputazioa estudio bat egiten ari da honen gainean, eta anteproiektu baten arabera 16 bus baldin bazeuden 9etan jartzen zen zifra egokia". Azpiegiturak nola- hala ziurtatu behar zirela zioen. Gauzak zeuden bezala dauden itxurak ditu. Sarasola autobusen nagusiak bere ordutegiak argitaratzea ez zigun oneritzi, Diputazioak joan-etorriak subentzionatu behar zituela eta. Goierriko punta batetik bestera joan behar duzula? Kalkulatzen jar zaitez goiz osoa beharko duzula. Autoa erosi behar. Betiko zirkulu biziotsua, jendeak ez ditu garraio publikoak erabiltzen, itxurazkorik ez dagoelako. Eta itxurazkorik ez dagoenez... Populazioaren jeitsiera ere kontutan hartzekoa da. Arazo zaila.

— **1991ko Biztanleria** eta Etxebizitzaren zentsuak emandako datuak EUSTATEk jasoak: Etxebizitza familiar hutsak: Abaltzisketan 30; Altzagan 9; Amezetan 106; Araman 14; Ataunen 157; Beasainen 819; Ezkio-Itsason 75; Gabirian 56; Gaintzan 24; Idiazabalen 190; Ikaztegiatan 32; Itsasondan 74; Lazkaon 326; Legorretan 112; Mutiloan 23; Olaberrian 64; Ordizian 577; Ormaiztegin 138; Seguran 128; Zaldibian 162; Zegaman 188 eta Zerainen 53. Eta biztanleen %15a (gazte-jendea) etxeak aurkitu ezinik, etxebizitza hutsak %18a direnean. (Etxe berriak egin eta egin, gune marjinalak sortzen dira etxe zahar eta hutsen inguruetan). Espekulazioa dela eta, etxebizitza lujozko gauza dirudi. Etxe huts horiek jabeak izango dituzte, baina ez al da esaten etxe hutsa galdu egiten dela?

— **Lazkaoko Herri Batasunak** alderdi guztiek ondo ikusi duten proposamen bat egin du bere buletinetik. Iturgaitzaga kaleari eta bai eta gune historikoari erantzun-go dion proiektu baten aldekoak dira: mojetzeko hormatzarra atzeratu e.a. "Zaharren Erresidentzia" bat beharrezkotzat jotzen bada bailara mailan, zergatik ez kokatu bera Zistertarren monjetxean?", galdera nobedosoak egin dute.



Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik

OGITARTEKOAK

BAZKARI eta

AFARIAK

880035



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

Jatetxea



Gudarien Etorbidea - Tel. 883960
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



JATETXEA

Donostia

ALTZAGA

Ilizondo Ordizia

Tel. 885255

* **Karta Zerbitzua**

* **Lan menuak**

**RUBIORENA
JATETXEA**

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 BEASAIN



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1ºC Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxe: 88 88 92



*"Los populares bersolaris Basarri y Uztapide,
haciendo las delicias del elemento
baserritarra".*

("Villafranca de Oria. 1950 Año Santo" urtekaritik)

BITXIKERIA

ANDRE MARIARI geuron eskeintza.

denok.

ANDRE MARIA, NERE AMA: Zuri oso-osorik
eskeintzen natzaizu, eta nere maitetasuna obeki
agertzeko, gaur eskeintzen dizkitzut nere begi,
belarri, mingain eta naizen guzi-guzia.
ZUREA NAIZ BADA. Ama errukitsua: zaitu eta gorde
nazazu zure gauza eta aberastasuna bezala.

ANDRE MARIA, naigabetuan poza. Otoitz gure alde
ANDRE MARIA, gaixoa osasuna. Otoitz gure alde
ANDRE MARIA, pekatariak babesa. Otoitz gure alde.

Amabirjinaren etxez-etxe ikustaldia

Erosle Afizpak

*Aukera osoa
Zure etxe ondoan*

Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN

OSASUN

**Belar eta dietetika denda
Naturopata eta masajista:**
eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 - Tfnoa: 88 61 14 - ORDIZIA

ARGIAren HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.: TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak

20160 Lasarte-Oria

Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63

Faxa: (943) 36 10 48



Harriette Nguema:

“Mundu guztiak daki gauez lan egiten dudala”

31 urte ditu, Gineako etorkina da, Ordizian “erori” zen duela hiru bat urte, kontura ez datozen arazo pertsonalak medio. Bere herrialdean gauza handia ez bada ere, diplomatiko baten alaba da, funtzionari administraria izan zen lau urtez, bertako Haziendan eta “Banco de Credito y Desarrollo” delakoan. Estatura etorri eta ez zitzaion ondo joan Madrilén. Ez du inolako prolemarik bere aberriko gobernuarekin, oso harro dago ginearra izateaz.

Ziur zegoen “zer itxaron zenuen hemen aurkitzea eta zer aurkitu duzu?” galdera egingo niola. Egin nioen: ez zuen beste munduko ezer aurkitzea itxaroten, jende jator askoa aurkitzea espero zuen eta aurkitu du. Gustora aurkitzen da bertan.

Gustora, duen lana izango ez balu. “Nazkaturik nago “gau- zale” izateaz, ezer dezenterik ez aurkitzeaz, utilizatua izateaz gogaiturik nago. Ni neu izan nahi dut”, diosku, ez gene-

kie-
n a
a i-
tort-

zen digula, batzutan prostituitu egiten dela, alegia. Gure harridurarako, Ordizian ongi den jendearekin baititu erlazioak. “Horrek ez du zerikusirik —dio—, eurak badakite liberatua naizela, batzutan “gaupasan” nabilela. Zergatik gezurra esan behar dizut? Mundu guztiak daki Harriettek gauez lan egiten duela.

Euskal Herrian bizitzeaz pozik, baina beste zerbait nahiko lukeela, gizaki gisa bizi ahal izateko. Eskubiderik baduela uste du; “zer egingo zaio” eta horrelakoak esaten dituela noizbehinka, erresignaturik. Legeen markoan dabil, badu “Carta de Trabajo” delakoa eta Jaurilaritzako abisuaren zai dago, nazionalitatea noiz emango ote dioten.

Gutxitan, baina Harriette baztertua



EMAHUNDE

izan da 3. mundukoa izateagatik. Halere, “nik ezin dezaket esan beltza izateagatik ez dudarik lanik lortu. Behin bakarrik, tenda batera joan eta etxekoandreak gaizki begiratu zidan, nik badakit zergatik, nire arrazakoa izateagatik eta mila koloretakoa jarri zen. Buelta erdia eman eta agurtu nintzen”. Arrazismoa aipatzen diot: “Nik ez dakit zer den arrazismoa, (nire Herrian bai, arrazista naiz) eta ez dut traba gehiegi izan, bizkarretik izan ez bada behintzat. Arrazismoa gauza absurdotzat dauka, “begia begi-truk”, kulpa gabekoek ordaintzen dutena.

Orain denboraldi bat darama Bea-

KATTALIN

ERRETEGIA SAGARDOTEGIA



Antzizar auzoa, 4. “Biona” etxea. (Polideportibo ondoan)
889252. BEASAIN

Kirolak Sport

Ski modalitateetan
espezialitatutako denda

Tel.: 88 16 66
Zaldizurreta, 3

Kirolak Sport

K-2

20200 BEASAIN

saingo enplegu-teknika ikastaro bat egiten. Esperantza handiak ditu jarriak horretan. Bienbitarte guzti honetan Ordizian etxe bat alokatu eta jantzita bizi da. Ordiziako Udalak behartsuentzako laguntza bat eskaini bide dio, baina ginearrek ez zuen onartu, duintasunagatik. Horregatik "gauak galtzen" ditu, dirurik ez duenean, klub batean lan eginez. Orainxe bertan ez du gaua-emenen, utzi egin nahi du, ezin baitu agoantatu lan hori.

Lan desiragarriarik ez ordea. Iazko udazkenean Ordizian eraturiko "Ipar-Hegoa" sentsibilizazio kanpainan bezelakoek ezer gutxitarako balio dutela uste du. "Zer dakite gutaz? Balioko dute horretan interesa jarri eta etekinak ateratzen dituztenentzat. Hori politika da niretzat, mandatarioen arteko kuestioa". Ordiziako Alkatearekin ere izan zuen hika-mikatxo bat. "Ojala Alkate J.ak betetzen badu agindutako, ze zioenez 2-3

urte omen daramatzate afrikar emigrauteak laguntzen eta hori ez da horrela".

Berak ez du sartu nahi politikoen soldaten gorabeheretan, berak bereari begiratzen dio. Lan dezente bat, konformaeraza da Harriette. "Badugu atsotitz bat gure lurrean dioena ardia loturik dagoen lekuan bazkatzela", milioiak irabazten dituenak, mereziak izango ditu. Ez zait ajola, edozerekin naiz konforme. Nahiago dut gaupasak egitea eskean ibiltzea baino", eta gusta ala ez gusta horretan jarraituko du dirurik ez badu.

Neskame gisa ere lasaiago legoke, arriskurik gabe, oso arriskutsua baita prostituta lana, gaitzak harrapatzeaz gain, min egin diezazuke edonork, bi aurpegitako jende asko baitago beti ere.

Aurpegi bakarreko emakumea

"Nire lanean aurkitzen banauzu, lu-

rre-gaina zapaldu duen emakume "borde"ena nauzu. Kalean edo etxean, aldameneko bizilaguna bezalakoa". Iragana borratu nahiko luke, baina oso zaila deritzo. Arrisku eta gaisotasun asko pasa du etxemaiteetan, lan txar hori utzi nahiago luke. Aukera bat eskatzen du, "mundu guztiak behar baitu oportunitate bat bizitzan", eta ez du izan oraindano.

Ez du uste ordiziar "puntako-jendea" rekin esotikoa delako dabilenik. Lagun handitzat ditu, eta nahiz eta beraien posizioan ez egon, ez dute baztertzen. Horregatik akonplexatzen da batzutan. Hemen ez baitago ondo ikusia "emagaldur" izatea. "Jendea oso moralista da, eta gero... Hitzegingo banu putetxetara doazen moral bikoitzeko asko eta askoetaz, makina bat dibortzio bai... Gaur, bihar eta etzi esango dizut: aurpegi bakarreko emakumea naiz".

Beti Modari Begira

SANDRA ETA MARCO

BETAURREKOAK

2.550 Pta.

Betaurrekoen egun eguneko moda zure esku 2.550 pezetatan. Zure begiradaren xarma eragingo duten Sandra eta Marco betaurreko berriak J. LARRAÑAGA OPTIKA bakarrik aurkituko dituzu. Moda eta prezioa zuretzako gertu MULTIOPTICASen optika guztietan.



San Pedro, 22 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradian Enparantza, s/n - ORDIZIA

Aida idi!

Aida idi! oihukatzen zion baserritarrak, akuiluarekin gogor eraginez, bere idi parreri aldapa gogorra ezin igorik ibiltzen zirenean. Antzekoa da gaur egun gure baserritarrek bizi duten egoera, aldapa luze ta gogorra beraiek aurrean dutena.

Aldaketa sozialen eragina baserri munduan

Mende honen hasiera arte itsasondotarrak, euskaldun gehientsuenak bezelaxe, baserrietan bizi ziren, nekazariak ziren. Baratzatik eta ganaduekin ateratzen zutenarekin nola- hala bizitzeko osatzen ziren. Urte hauetan azaltzen dira lehenengo fabrika edo industriak gure inguruan. Ondoren izan ziren krisi mundiala eta gerra zibilak atzeratu zuten piska bat industriaren garapen hau baina mende honen erdialdera erabateko indarra hartzen du industriagintzak. Goierrri guztian sortzen dira makina bat tailer eta fabrika (fundizio, laminazio, kaldereri,...) eta era berean aldaketa hauek baserriaren egoeran zeresan haundia izango dute.

Alde batetik fabriketan lana egiteko jendea behar da eta eskulan hau baserrietatik iritsiko da. Industrian ere ondo kostatuta irabaziko da dirua, baina zortzi ordu sartu egunean eta hilaren azkenean hor izaten da sobrea ondo beteta.

Baserritarrak baserria utzi eta kalera jeisten hasten dira. Etxe berriak, eskolak umeentzat, medikua bertan, denda, garraio eta hainbat erosotasun direla eta, jendeak nahiago du kalean bizitzea. Gazteek bereziki, kaleko bizimodua aukeratzen dute.

Fenomeno hau ez da hain arraroa. Gu baino nazio aberatsagoetan ere gertatu zen, pobregogotan ere gertatzen ari den gauza da. Industriaren garapenak beraiekin darama aldaketa hau. Nazio aurreratuetan nekazaritzatik bizi den jendeak

%6-8a bakarrik suposatzen du eta gu ere bide horretan gaude.

Baina aldaketa hau ez ote da gure kasuan oso azkarra eta traumatiko samarra izan? Baserri asko hutsik gelditu dira. Lehen belardiak zirenak, orain pinuz josita daude; basoak larrez bete dira eta bide asko sasiak hartuta daude. Kultur mailan berriz, zenbait ohitura eta tradizio galdu dira; hizkuntzan ere eragin haundia izan du eta bizitzako beste arlo batzutan ere beste hainbeste.

Faktore ekonomikoen eragina

Pasa zen etapa hau, aldaketa sozial hauek egur haundia eman zioten baserri munduari. Pentsa genezake gelditu ziren baserriak aberats eta prosperoak zirela, holako proba pasatuz gero beti irauteko indarra izango zutela.

Orain esan dezakegu diferentzi sozialak gutxiagotu egin direla (asko aurreratu da baserrien erosotasunean, bideetan,...), baina ekonomikoak berriz areagotu egin dira. Gure lurraldean ura eta belarra ugaria izaten da baina lurrak aldatuak dira, askotan mekanizazio haundirik ere ez dago egiterik, pentsuak ere garestiak dira eta azkenean gure baserrietan lortzen den esnea edo haragia beste nazioetan baino garestiagoa gertatzen da.

Europako Ekonomi Elkartean sartu ginenetik arazo hau haunditu egin da. Europan esne eta haragi gehiegi produzitzen da eta jakina, holako egoeratan behar daudenek ordaintzen dute. Gure sarrerak Europako Elkartean suposatu du europarrak merkatu berri bat badutela beren esne eta haragiak kolokatzeko. Lehen zenbait traba baldin bazituzten beraien generoak honuntza saltzeko, orain erreztasunik besterik ez dute.

Bitartean gure baserritarrek pentsuen, alpapen eta makinarien prezioak gora nola egiten duten ikusten dute, baina esne eta haragienak berriz, behera. Eta egoera honetan gaude orain, datorren urtean mugen desagertzearekin situazio hau oraindik gehiago okertuko ote den beldurraekin.



Etorkizunari begira

Nahiz eta zerua iluna egon, zenbait argiune ikusten da baserri munduan:

—Alde batetik baserritarren artean elkartasun haundia nabaritzen da egoera larri honen aurrean. Beren erreibindikazioak lortzeko elkarte bat sortu zuten eta nahiz eta administrazioarekin hitzegitea zaila izan, zenbait gauza interesgarriak lortzen ari dira.

—Bestetik administrazioa ere pixkanaka konturatzen ari da baserritarren duen garrantziaz. Nekazaritzaz gain beste hainbat lan egiten du. Nolakoak izango ziren gure basoak eta mendiak baserritarrik gabe. Zenbat ermita, iturri, bide... geldituko ziren beraiek ez baliatuzte zaindu?

Baserritarrek ingurugunean egiten duen mesedea haundia da bai, eta honetaz konturatu dira administraziook zenbait sektore eta neurri batzuk hartu dituzte.

Gehienak puntualak izan dira: indemizazio konpentsagarriak, agroturismoari buruzko dekretoa, eta azkenean bat orokorragoa: mendi nekazaritzako politika. Hau dela eta Goierrin mendi nekazaritzako elkarte bat sortu da. Baserritarren elkarteak, kooperatibak eta udaletxeak osatzen dute. Beraien helburua baserritarren egoera hobetzea da, aktibitate berriak bilatuz, zerbitzu, ekipamendu, azpiegiturak hobetuz eta abar.

Konklusio bezala

Badirudi momentu hauetan baserrian egoera ez dela oso pozgarria, dituen arazoak asko eta haundiak dira. Baina bere bizitza luzean baserriak hainbat momentu larriak pasa ditu eta baita aurrera atera ere.

Oraingo aldapa gogor hau ere gainditzeko gauza izan dadila. Aida idi!

Joxe Antonio Mendizaba
(Zabalegiko Beterinarioa obia)

Aldaketak Ordiziako Azokan

Historia luzea du dagoeneko Ordiziako azokak. 1512.ean agintzen zuen Erreginak asteazkeneko bertan azoka egiteko emandako pribilegioaz geroztik, makina bat aldaketa izan du baserritarren periak.

1925.ean Enparantza estalia egin zenetik goraka etorri zen Ordiziakoa. Baina beheraka, amiltzen, hasia ote dagoen hot-sak ere entzuten dira. Hasierako pribilegio hura, gaur egun bizi dugun kontsumo-gizarte arorako ez ote den hain pribilegiatua eta hobe litzatekeela jaiegunitara pasatzea perieguna; beste merkatu batzu hartu diotela aurea; bertako jenerorik bezalakorik ez dagoela; erosteko ohiturak aldatzen ari direna; postuzaleen ohiturak aldatzea zailagoa dela; badirudiela ordiziarri bost ajola zaiela gainbehera, e.a. Gusto guztietarako kontu badago plazan, guztiz subjektiboak eta baita objektiboak ere (Ikus inkesta).

Dena dela, ematen du oraingoz bereari eusten diola, salneurriak jarri eta burtsa moduko papera eukitzen segitzen du, are gehiago, bertako Udaleko Kontuartzalea den J.L. Aranburuk behin esaten ziguna gogoratuz, etxeoandreek geroztik eta hobeto erosten dute, saltzaile izendatu eta konfiantzakoengana jotzen dute, goizean goizetik (etxek kanpoko emakume langileak dira asko eta asko).



J. Mann

Oraingoz giro bat galdu du, baina gero ere kontuak izango dira. Barazki, fruitu, ganadu eta gazten txapelketak izena ematen diote, baina ez da nahikoa. Izana, izana! Denda de-xente itxi da Ordizian, bestalde, Eroskik hipermerkatua irekiz gero. "Kultura" ez da hildako gauza, baizik eta gaur bizi duguna. Aldatzen doana. Kulturaz aldatzen arituko gara martxa bizian. Lanak emango ditu Ordiziako Plaza eus-teak.

"Euskal Herriko jeneroa indartu egin behar da"

Ordiziako feriarri buruz hitz egiteko, asmoak zeintzuk diren jakiteko eta abar, bertako alkatearekin, Juanbi Erauskinekin izan dugu solasaldia.

— **Ze hobetu beharra ikusten duzu Ordiziako azokan?**

— Alde batetik, Euskal Herriko jeneroa indartu behar da, gazta, oiloak eta. Eta bestetik, feria bezala oraindik ezagunagoa izan dadila nahi dugu. Irailean Euskal Jaietan egiten den azoka ezaguna da. Ezagupen hori urtean zehar ere izan dadila, publizitate gehiago, feria bezala saldu.

— **Zerbait zehatzik pentsatuta al dago?**

— Goierriko Herrien Ekintza eta Donostiako informatika- enpresa bat akordio batetara iritsi ziren datu-baseetan Goierri buruzko

zenbait informazio sartzeko: festak noiz diren, monumentuak e.a. Asteazkeneko azokan jeneroa zenbatean egon den ere azalduko da. Eta informazio hori datu-baseak erabiltzen dituen edozeini eskaini ahal izango zaio.

Asteburuko azoka

— **Asteazkeneko azokak bere horretan iraungo al du?**

— Bai. Baina asteburuan beste bat sortzea interesgarria izango litzateke, baina delicatessen-jeneroarekin: esparrago oso onekin, jatorrizko izena duten gaztekin, Label-a duten produktuekin e.a. Kontuan hartu behar da eroslea ez dela erostera bakarrik joaten, baita egunpasa ere. Erosteko ohitura eta turismoa



Juanbi Erauskin

uztartu nahi ditugu piska bat. Probintziako jendea hona inguratzeari nahi dugu. Adibidez, goizean erosketak egitera etorri eta arratsaldean Zeraingo kartzela ikustera joan daitezela. Beraz, helburu horren atzetik bailara guztia egon dadin nahi dugu, ez Ordizia bakarrik. Zenbait zerbitzutan bailara bezala funtzionatu nahi dugu.

Jon Iturrioz

Ordiziako azoka, gora / behera, ala...?



"Galdu" egiten da eguna.



**Jose, Ordiziako
Udaltzain kaboa.**

Ohizko asteazkeneko feria mantentzen da. Hemen jeitsi dena konejua da, hori bai, lehen ez bezala orain Tolosara eramaten baitira hiltzera. Arkumeak bere-ari eusten dio eta postu kopuru berdintsuak jarraitzen du. Plaza Nagusian 90-95 bat postu, frontoian beste 25 bat, makinarienean ere badira... Postuak berdintsu, batzuk utzitako hutsuneak beste batzuk betetzen dituzte. Duela 10 urte bezalatsu. Baserritarren postuak, gaztarenak bere horretan daude, hemen inguruak dira baserritarrak.

Gaur bezalako peri-egun batean asko jeisten da mogimendua, bai Oilo-kalean eta bai bestee-tan, feria baitago Beasainen, Azpeitin, Altsasun... Jendea banatu egiten da, beraz. Hemen kale egiten dute. Honelako peri-egunetan (asteazkena jai- egun bada, asteartera aurreratzen da) jende asko ikus liteke kalean, baina postuak gutxiago dira.

16 Goierritarra



**Joxe Mari, Aramako
Iturrioz baserriko
semea.**

Behera, behera. Asteazkenetakoak eusten zioke eta Azoka Berrietan gora egiten dik. Asteazkenez kanpo izanez gero peria-egunak, nahikoa galtzen duk ia. Gaur letxua saldu dek, barazkitan. Arkumea esan didatenez lur-jota geratu dela gaur.

Gu betidanik gatozek ferira eta orain dela hamar urtetik hona ez zegok aldaketa handirik, mantentzen dek, baino uste diat beste azokak baino publizitate gehiago daukala eta ez diat uste esaten duten hainbekoa denik. Halere merkatuen boltsa papera betetzen dik zenbait produktu eta janari kontutan, ehize, arume eta abarrenetan. Giroa pataltu dek eta nik uste diat geroz eta gazte jende gutxiago hurbiltzen dela Ordiziako peri hone-tara. Nola astegunekoa den; ba-

da, larunbatetan Zumarragara joaten gaituk eta Tolosan bertan ere gazte jende gehiago ikusten duk horietan.



**Aitor Asurmendi,
"Aitzol", euskara
irakaslea, zegamar
ordiziratua.**

Asteazkeneko ere ez naiz etortzen. Irailekora, Eguberri hauetako feria inportanteenetara bakarrik, lanak ez baitigu uzten.

Ez dut uste asko aldatu ote denik asteazkenetako peria, eta gutxi gora-behera giro hau eza-gutu dugu. Bueltatxo bat emate-agatik etortzen gara, ibili, ikusi zer dagoen eta... antigoaleko galtzontzilo luzeen bila noa, Azokan ez badaude Eroskira, hotza egiten baitu.

**Mari Tere,
Anoetako Mendibel
baserriko
etxeakoandrea.**

Gaur gaixki dago. Otza, gero peria asko dago gaurkoz, bakizu, jendea naastu egiten da. Nik amar-amabi urte daramazkit Ordizia etorri eta, segun, ze garaitan, jenero ona badakarzu aixa saltzen da naiz garesti izan. Fetxa auetarako jeitsi egin da giroa; Tolosan ere berdin, bai eta Andoaingo perin, festak dirala-ta, enpresak krisisan daude eta ez dakit jendeari beldurra sartu zaion-edo, nere iritzi-rako jeitsi egin dala.



**Arantxa Sarasola,
ordiziarra, "Arregi"
drogeriako depen
dienta, 57 urte.**

Mantendu egiten dela uste dut, ez dut uste beheraka egin duenik. Izaten dira gora-beherak denboraldi batzuetan baina hor dago. Gure klientela ikustearekin ikusten dut hori nabarmen.

Nik 33 urte daramatzat plaza honetan eta nahiz eta lehenagoko gizartea oso normala izan eta orain nahastuxea dagoen, bada, azkeneko urteotan igoaltsu ikusten dut azoka. Eroski irekitzearekin jendeak haruntza egingo zuen, baina etorri ere etortzen dira.

Lazkaoko



Beiztinberriko Miel urtetatik ondo (74),

Guk, e, peria gutxi ikusten diagu. Gaur Ordizin ez da peririk izan, ezta itxurarik ere. Asteazkenero etortzen nauk eta au galdu dek (Garagartza plazako ganadu-peria) eta ganaduena ba-

karrik ez, emen egiten zan bille-
ra orain Arkuma- plazako artan egiten dek. Jendea an egoten dek, leenago emen egoten zan.

Aspaldiontan ez det ezertxo ere ekarri perian saltzeko modukorik, konejuak kendu zien, txerriak gastatu dituk, orain bi hankakoak, txerriak...! Leenagoko konturik ez dago orain, ezta gutxiagorik ere, peria gutxi. (Kentzak ortik aparatu ori...!) Gu etorri gabeko faltaz ez da galdu. Emen peria latza egiten uen garai baten. Eguerdin bertan gelditu jendea bazkaltzen eta gero kafea artzen jokun arratsaldean, plaza guztia ganaduaz beteta, tratua andik eta emendik, zer ikusia... Eta orain baterez. Muturre berotuta ere bai majina bat baserriar etxaldera.

Pepita Arizmendi, gazta-saltzailea, 58 urte, Zaldibiako Lizarraga baserrikoa.

Orain urte batzuk zetorren jende berbera dator gaurregun. 10 urterekin asi nintzen lan hone-

tan eta tira. Badet kontu bat ere: alako baten gizon pottolo bat etorri zitzaidan, ea zenbat kilo gazta salduko nizkion galdezka eta nik esan nion berak eun kilo erosten bazidan, ba, eun kilo gutxiago nittuzkeela.

Askotan etorri zaizkit ispektoreak ere galdezka. Oiek periko punta guztietan begiratzen dute eta ez dakizu zenbaterainoko galdera-miaketa traketsak egiten dituzten. Guk ematen deguna artzai-gazta da eta normalean Araitzetik ekartzen degu. Gero berriz esan bear da, guri ko-bratzen dizkiguten zergak geigizkok direla eta ondo dago lan postuak sortzea baino ez gure lepotik. Garbitasun aldetik, komun publikoak jarri ditzatela eskatuko nuke eta konpetentzia leiala izan bearko lukeela.

Peio Garmendia, 27 urte, udal langilea, ordiziarra.

Urtebete honetan ez dut aldaketa handirik ikusi nik. Beste lan-kideek esan didatenez, izan dira aldaketak, hemengo produktu batzuk gaur baino gehiago saltzen ziren lehen. Erropa-postuak



lehen baino gehiago dira, Plaza Nagusitik beste lekuetara zabaldu da.

Bada mogimendu gehiago/gutxiago, egun handiak S. Jose eguna eta Eguberriko feria. Kaxkarragoak ere bai, jendeak segitzen du etortzen, seguraski ikustera gehiago erostera baino. Gaur egungo konpetentzia ikusirik, ez zait iruditzen galdu duenik merkatu honek. Ondo irudituko litzaidake feria-eguna aldatzea, larunbatetara adibidez, baina ez dakit egun horretan beste ferietara (Tolosara adib.) doazen saltzaileak etorriko ote liratekeen. Jendearen ohiturak aldatzea zaila da.

(9'ike azken feria: asteartea

J. Arano, M. Albisu eta A. Martin

ARTZAIAREN GAZTA
ORDIZIA GAZTANDEGI
KOOP.

DATA: VISUAL

IDIAZABAL
Jatorri Izenaren Garantiarekin

%50 KOIRE GAZTA

Anakur eta Urbian ibiltzen diren ardien esne gordina ez egindako gazta. Urario zaharrei aitiaz eta aurrezpenak eskatzen dituen kondizioak bidez egina eta ondua.

**ORDIZIA
GAZTANDEGI
K O O P.**

Jose Miguel Barandiaran Enparantza

Telefona (943) 88 94 20

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

HERRI HONEK (1615-1990), 375. URTEA BETE ZUEN ORAIN BI

Idiazabalgo gure garaikoak

Urte horien inguruan hasi zen, poliki-poliki, baserri-giroko gizartetik industri girokora pasatzen Idiazabal.

1930.ean Inozentzio Gorrotxategi jaunak, "Ashari" izena jarritz, lehen mekanika-lantegia jarriko du.

1.939.an, Probidentziaren Ahizpak etorriko dira Frantzia aldetik. Arraizenean eta Torre zaharrean egon eta gero, 1942.an, Zubiaurreko monjagaitegia fundatu zuten. Gaur egungo kapera eta etxearen zatirik handiena 1949.an eginak dira. Jaso beza, Idiazabalen hain errotuta eta herritar guztiei mesede egin eta egiten dien monja-talde honek ere gure omenik beroena.

1942.an, Patrizio Etxeberriaren lima-fabrika egin zen Mitizar eta Olariagako lurretan.

1947.an, Ursuarango auzoa Idiazabali atxeki zitzaion.

1949 eta 1950 bitartean, San Migel elizaren eraberritze orokorra egingo da, lagundu, herritar guztiek lagundu zutelarik, baita kanpoan bizi zirenek ere. Inazio Jauregialzo jaunak Amezua markako organu berria oparitu zuelarik, zahararren kaxan jarri zen. Orain arte aipatuez gain, ezin ditugu ahaztu herriko eguneroko zereginean lan-kide izan diren guztiak; bere antzezlanen bitartez, bizimodua atseginagoa egiten lagundu duten guztiak behar ditugu gogoan eta, nola ez, edozer ospatzen zela ere, bere apainketei esker, hainbeste gauza eder egin dituztenak eta —batez ere— eliza txukunduz, gure mende honetan bailara osoko jendeentzat deigarri bihurtu zutenak. Ezin baz-

ter utzi, herrian irakaskuntzari lotu eta bere onenak eman zizkioten guztiak; amaiezi-nekoa genuke zerrenda. Idiazabalen 50 urte baino gehiagoz ere aritutako irakasleak izan dira. Beste batzu, arteen eta letren arloan saiatu ziren etengabe ongi egiten. Aipa ditzagun Joakin Telleria mediku jauna; Joakin Tolo-sa bikario jauna; musikaren zabal-kundean, Fabiana Zudaire andrea, Jose Mari Gorrotxategi, Legazpiko Bandaren zuzendari jauna eta, gaur egun bertan ere, Naxario Telleria eta Bittoriano

Telleria, beraren anaia —organista argia eta parroki abesbatzaren zuzendaria—. Eta azkenik, egunez-egun, herriaren onerako lan egin duten eta jarraitzen duten guztiak.

1953.an Jose Maria Aristrain jaunak bere enpresaren eraikuntzari ekin zion; beraren zati txiki bat Idiazabalgo lurretan dago.

1954 eta 1958. urteen bitartekoan, Pantaleon Zabala jauna alkate zela, Plaza Nagusia eta Udaletxe berria egin ziren. Igandeetako dantzaldia "gramola" famatuaren bidez alaituko da —Martxelo Aranburu al-



San Migel Parrokia

FOTOETXE



FOTOETXE

goazil saiatu hark gobernatua—txistulari-taldearekin txanda egin; 60 urte eta gehiagotan, Felipe Gorrotxategi izan zen atabal-jolea.

1968.an, Ampo Fundizio Koooperatiba-Elkartea hasi zen lanean. Enpresa guztiok, herritarren bizitzaberritmoa aldatuko dute. Lehen, nekazaritza-lanak, artzantza eta zerategi batzu zeuden; Beasaingo CAF-en edo Bernedoren lantegieta-ra zoazen bakar batzu ere baziren.

1942-tik 1970-rarteko urteetan etorkinak azaldu ziren; asko he-

rrian txertatuko dira eta, gaur egun, idiazabaldar eredugarriak dira.

Klaudio Telleria jauna ere gogoan izan beharko genuke; herriaren ongile izan zen, nola Parrokiako kultur udal hainbatetan eta bertako zenbait obra eta konponketetan, hala "sarri asko" Gurutzetako santutegian egindakoetan, batez ere.

Hor dugu Pepita Tolosa Zudaire, Don Joaquin bikarioaren arreba, ere. Zoragarria, dekorazio eta apainketa lanetarako zuen eskua. 1971. urtean, heredentzia baten zatia jaso zuela, puska bat, Eliz Artxi-boa berriz sailkatu, kaxa egokitan gorde eta, dena armairu txukun batzutan sartzeko jarriko du; gaineratikoa, Gurutzetako santutegia zaharberritzeko lanei ekiteko utzi zuen.

1964.ean eraiki ziren lehenengo San Blas hegazti- haztegiak.

1971.ean hasi zen Jaso garabi-enpresa Idiazabalen. <1971.ean baita

ere, eman zion A.S. Paulo VI.ak A. Inazio Iparragirreri, "Gurutzetako Madonna"ren Santutegirako, Aita Santuaren Kaliz entzutetsu eta artistikoa, Ciro Stara e napolitar bitxigileak egindakoa. Vaticanoko Basilikako S. Pedroren aldarean estreinatua elizkizun batetan.

1972.an, A.S. Paulo VI.ak hartu zituen Idiazabaldik abiatutako erromesak, eskertu ziotelarik opari baliotsua eta harrera berezian eskaini nire amak, Maria Dolores Iparragirre, lorratza, erdian agertzen zuena Gurutzetako Andramaria, gazta eskaintzen zion artzai belaunikatuarekin, "Artzaien herriak, herrien Artzaiari" A. Inazio Iparragirreren inskripzioak eta Hipolito Iparragire J.ak gazta bat oparitu zion. (Lorratza Jose Ramon Anda J. eskulturgileak landu zuen).

1978.an inauguratu ziren "Aita Inazio Iparragirre" eskola berriak.

1981.ean, Santiago Agirre J.a zelaririk Alkate, Herriko Banderaren

erabilpena berrezarri zen.

1981.an inauguratu ziren Udal-pilotaleku Estalia eta Bola-tokia.

1983.an baita ere, eraitsi ziren Parrokiako Baratzeko harresiak, 1603.an eraikiak, "Artzaiaren Monumentua" buru duen Mikel Deunaren Plaza berria eraikiaz ondoren.

1986.an ireki zen ingurabide-errepidea, Kale Nagusitik zehar ibiltzen zen trafiko biziaren ondorioz (Madrid-Irun errepide Nal.I).

1987.an inauguratu ziren Udal-igeritokiak.

Pedro M. Mujika

Itzultzaile: Antton Berasategi.
("Idiazabal 1615-1990"-tik)

Festetan da



"Izal" egunotan!

merka P21 dendak



ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina **ORDIZIA**



TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 **ORDIZIA**



MAIKA

Jostundegia eta oihalak

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
Tfnoa: 88 91 59 - ORDIZIA

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goierri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59



P - 21
Kafetegia

- Sandwitx eta gosari apartak

Goierri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

Goiztiri **EUSKALTEGIA**

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea; Tfno.: 88.91.74
BEASAIN: Kale Nagusia, 15-3.a; Tfno.: 88.93.40
LAZKAO: Antsolegi

EUSKARAZ BIZI

LAZKAOKO "GERRIKO" LIBURUDENDA:

Euskal liburuaren Goierriko eskaparatea

Lazkaoko Gerriko S.A. Elkartea ez da negozio-rako afanarekin sortua. Eta mesede galanta egiten dute, bai, Antxotegi etxeko taberna-txokoak eta bai eta ere bertako liburudendak: edonork badaki euskal liburu edozein seguraski Gerrikon aurkituko duela. Euskal Liburua dute oinarritzko: oasi-bakarra, desertuan.



Gerriko Liburudenda Gerriko S.A. Elkartearen barruan dago. (100 eta piku bazkide ditu Elkarte horrek alajainetan!). Duela zenbait urte, hainbat eta hainbat euskaltzale bildu eta sortutako Elkartea dugu berau. Antxotegi etxea erosi eta berregitearekin batera, Gerriko txokoa (taberna eta soziedadea) eta liburudenda sortzea izan zen asmoa. Guzti honen helburua, euskaldunak biltzeaz gain, Lazkaon euskara ikasten ari zirenei euskal liburuak eskuratzeko erraztasuna ematea izan zen, Goierriko Euskal Eskolakoak oharturik baitzeuden ikasleek ez zekitela nora jo horien bila.

Aipagarria da, Elkartea hau osatzen duten bazkideak, euskarak elkartu zituen, eta ez hortik aterako zuketeen etekinak. Izan ere ez baitaukate negozio egiteko helbururik, zentzu merkantilistik; helburu bakarra, euskara bultzatzea izan da. Euskaltzale

hauen laguntzarik gabe, beraz, zaila zatekeen Gerriko liburudendak lortu duen Goierri mailako euskal liburuaren eskapaterik esanguratsuen lortzea.

Bazkideek Gerriko-txokoa erabil dezakete, baina askok eta askok ez dute erabiltzen Lazkaon kanpoak (ordiziar, ataundar, beasaindar...) izaki. "Gaur egun pasibitate batean eroriak gaude Elkarte bezala. Ez ordea liburudenda gisa, gauzak badoaz, eta beno", diote Goreti, Maria Pilar eta Pilik, denda errejentatzen duen hirukoiteak.

Orain dela 7-8 urte ireki zen liburudenda eta hasera batean Goretik bakarrik egiten zuen lan, gutxitarako ematen baitzuen. Gerora aldaketa nabariak suertatu dira bertan, haserako helburua mantentzeko beste zenbait gauza sartu behar izan bait dira, hala nola, eskolako material askotarikoak edota lehenengo solairuko jostailu

erakusketa.

Liburudendak aldaketa jasan duen bezala, bezera ere aldatu egin dira urteak pasa ahala. Hasera batetan hurbiltzen zen jendea, batez ere, euskara ikasle eta irakasle goa zen, baina ez oraingo ikasle mota. Oraingo ikasleak ikasketak bukatuak ditu, lanik ez du-edo eta euskara behar du lana lortzeko. Ikasle mota honek liburu gutxiago erosten du eta, beraz, diru gutxiago uzten du. Bestalde Euskaltegian duten liburutegia osatua dago eta badauka nahiko aukera bertan irakurtzeko. Hori bai, eskolan agindutako liburuak erosi ditza-ke, eta azken urteotan euskal liburu atsegina ere badenez, agindu hori gustora hartu liteke eta irakurzaletasuna eragin

Bezera honez gain, azkenaldi honetan batez ere, herrietako bezeraok hasi dira hurbiltzen. Umejende asko, gehienbat umeei oparitzen zaizkie liburuak. Gizonezkoak, aldiz, gut-

xien sartzen direnak eta gehienetan beste zerbitzu baten bila joaten dira. Gehien saltzen dena, nobelak eta ariketa liburuak. Azken urteotan irakurlego berria erakarri nahianedo, Durangoko Azokaren ostean, Lazkaoko Udalak eskatuta, azoka txiki bat antolatzen dute abenduan, liburudenda barrura sartzen ez den jendea inguratzea lortzen dutelarik.

Udal Liburutegiari ere beraiek saltzen dizkiote eta "liburudendaren geroa txarra ez bada ikusten ere, Gerriko S.A. osatzen dugunok motelune batetan aurkitzen garela" esan daiteke. "Gero beste gauza bat da Maizpideko Udako Ikastaroen inguruan sortzen den giroa. Jende gehiago etortzen da Lazkaora eta moteltasuna uxatzen da eta "saltsa" sortu".

Nolanahi ere, denetarik ikusia dute Goreti, Maria Pilar eta Pili langileak denbora guzti honetan zehar. Hainbat gertakizun xelebrek makina bat irribarre sortu dizkie. Titulu baten aldrebeskeriak, adibidez, parrez kontatzen digu Goretik: "Behin bezera batek telefonoz deitu zigun, "Osos amorosos de la postguerra" izenburua zuen liburu eskatuz. Benetako izenburua "Usos amorosos de la postguerra" zen.

**Nekane Altuna
Loinaz Agirre
J.A.**

Goierritarra 21

ORDIZIAR TALDEAK BERE LEHEN DISKA EKOIZTU DU "TX"-EKIN

"Potrotaino": partiturarik gabeko kitarreroak

Notizi-gai dira orain,
beren lehen diska,
"Muerte al violador", atera
dutela eta. "Potrota /
TX"en arteko Goierriko
lehen ekoizpen jenuinoa
dugu hau. Ez al da izango
azkena!



84. sortu zenetik gorabeherarik, maketa-rik, aldaketarik izan da "Potrotaino" musika taldean. Oraingo formazioa: Pedro, baxua eta ahotsa. "Txapu" kitarra eta ahotsa. Estebi, kitarra eta punteoak eta Gorka (Morenin) baterian. Toño kantaria soldaduskara. Eta Pedro, baxua, ahots bilakatu da. Caballero ere taldetik kanpo da eta Anton bateriak ere utzi egin zuen, Legazpiko Morenin sartu zelarik.

Diskoa estudioak Olaberrian dituen "Tx" zigiluak (Pedro Uranga eta Anjel Glez. Katarain) eta "Potrotaino" berak produzitu eta bukatu dute, Basati arduratu dela banaketaz. Goierri izan dira kantari eta talde dexente, Fernando Unsain, Josu eta Jokin, "Ancha es Castilla", "Sahats" eta beste. Baina lehen aldia da bertakoek bertan guttiz eta osorik diska bat egiten dutena.

Oria ibaiko traperiako banda

"Potrotaino" denbora-pasa moduan sortutako talde bezala ulertu beharreko fenomeno da. Ez dute sekula planteatu hortik bizitzea. Entsaiuak eta emanaldiak ere noizbehinka, ahal dutenean eta ondo pasatzeko egiten dituzte han eta hemen, gaztetxe giroetan-eta. Haseran Ordiziako

Traperian entsaiatzen zuten eta orain Gaztetxe atzeko tailer itxi batean. Oria ibaiarekin loturik, gogoratu 87.an O. Gazte Asanbladak antolatutako Udaberriko Festan jo zutela Tximistako zubi azpian.

Honezgero urtebete da iragarria zegoela diska. Azkenean. Denborapasa ibiltzetik disko bat ateratzera jauzi handia dator, ordea. Halere, lehenagotik badakarte bagaje bat (kanta asko, 500 eta 1.000 aleko bi maketa). Diskan kitarra bat gehiago sartzean eboluzioa nabarmena da. Gaiak ere ez dotoz maketetan bezala, instrumentista berri bat egoteak eta estudioan sartu izanak, pista ezberdinetak grabatuz, asko lagundu die. "Soinua ikaragarri hobetu da. Balio izan digu baita ere musika mailan bakoitza nola goazen ikusteko", dio Pedro kantariak.

Eta pozik daude emaitzarekin. "Anjelek berak esan beharko du, baina bai, asko landu dira nahasketak, efektuak, zuzenean horrela eman ezin direnak. Orain, oinarria, joaz grabatua izan da. Taldearen musika definitzea zaila egiten zaie: "Guk kitarrek eta beste hartu eta, belarriz, jotafuego jotzen dugu, eraginak nabariak dira, heavyrenak, e.a. Besteek defini gaitzate". Baina Punk-Hardcoretik oso urrun ez dabiltzala aitortzen dute.

Jarraitzaile ugari ditu "Potrota"k Euskadin nahiz kanpoan. "Hemen jendea gutaz saturaturik dago", gaztetxeetan ezagunak dira; Madrilén ere egonak dira, San Blaseko "Sala Argentina"n, arrakastatsu. Jauzia kualitatiboa da oraingoa, soinu hobearrekin topa ditzakete "peña"koek eta gustora utzi bide dituzte.

Letrei dagokionez, kalean gertaturikoak kantatzen dituzte, gaztelaniaz. "Kalean gertatzen eta ikusten denaz, zer kontatuko dizugu zuk ez dakizunik?". Gauzak egitearen aldeko agertu zaigu Pedro, gauza askorekin kezkatua. Goierriar musika panoraman gazte talde mordo bat sortu direla, gogoz, eta entsaiu-lokalen premia azpimarratzen dute.

Diska kaleratzeko diru-zulo batean sarturik daude, noizpait aterako direlakoan, emanaldien etekinekin e.a. Dexenteko promozio bat egin dute, bideak irekiko dizkielakoan. Taldekoak langileak dira eta gaitzerdi. Diru kontuak medio, Martutenen ez bukatzeko ahaleginak egin eta kito.

Kontaktua:

Txarly (apoderatua): 943-881727.

Mikel Aramendi

"Maritxu nora zoaz, eder galant hori..." ...`DRINDOTS'-ekin dantzara, nahi badezu etorri!"

Hainbat urtetako lanaren ondoren, bere lehen diska du kalean Drindots talde goierriarak, IZ disketxearen eskutik. LP-ak taldearen izen berbera darama. Haserak Lazkaon izan zituen taldea, Lazkao, Beasain eta ordiziarrek osatzen dute gaur egun.

Orain 10 urte hasi ziren, musika jotzeko zaletasunak bultzaturik. Egia esan, orduan jende hasiberri guziak besteen kanten bertsioak egiten zituen eta horrexegatik hasi ziren hauek ere berbenetan jotzen. Lau-bost talde baziren garai hartan Goierriin. Egun, beraiek bakarrik jarraitzen dute.

GOIERRITARRA— Jakina denez, lehen beste izen bat zenuten, partaideetan ere aldaketak izango zenituzten...

DRINDOTS— Herriko ezagun batzuk bildu eta lagun artean hasi ginen, denboraren poderioz hainbat aldaketa egon dira, batzuk utzi zuten eta oraingo formazioa orain dela bi urtez gero gabiltz. Baina horren aurretik izena aldatu genuen, hasera batean "Arrano Beltza" ginen eta nahiz eta izen polita izan, ez zen oso komertziala eta aldatzea erabaki genuen. Asko pentsatu ondoren, "Drindots" jartzea erabaki genuen, hau ere ez dakit oso komertziala ote den, inork ez baitu ondo ahozkatzen!

(b) <Nolatan izen hori? "Izen asko pentsatu genituen... "Keler", "Adar"... azkenean bakarren batek ekarri zuen beste hau eta gaur arte. Haseran arraroa eta orijinala zela iruditu zitzaigun eta gerora jakin dugu orain 20 urte beste talde batek izen bera zuela!

G.— Kontzertuen aldetik, zer moduz zabilzate?

D.— Haseran emanaldi gutxi eta gaizki ordainduak egiten bagenituen ere, urtez urte gehiago jotzen ari gara, aurten 75 dantzaldi egin ditugu eta pentsatzen dugu, diskoa grabatuta, datorren urte ho-

Drindots":

Jon Urdangarin, ahotsa eta kitarra; "Triku" Agirrezabala: teklatuak; Miguel Caballero: bateria; Xabier Auzmendi: kitarra eta Igor Oiarbide: baxua.

Harremanak:
887605.



netan gutxienez 100 egingo ditugula".

G.— Nondik sortu zen diskoa grabatzeko ideia?

D.— Aspalditik geneukan asmoa, ia-ia haseratik. Nahiz eta dantzaldietan erdaraz ere kantatu, euskaraz grabatzea zen gure helburua eta jotzen hasi ahala konturatu ginen gure gustoko musika joz bizitzea zaila zela, berbenak eginez ere graba zitezkeela gure kantak. Aspaldiko ideia hori orain gauzatu ahal izan dugu, zeren azken urte honetan berbenamunduko talde dexente ari da diskak grabatzen eta badirudi berbenen ohitura berrindartzen ari dela.

G.—Asmo hori nola bihurtu zen errealitate? D.) Taldeko batek, Jokinek, IZ-n lan egiten du eta bertako nagusia (Fernando Unsain), beasaindarra da, Lazkaon bizi izandakoa, soinu-tekni-koa Kaki Arkarazo laguna da. Diskoa grabatzeko eskaintza luzatu genien eta, beno, ez genuen arazo handirik izan, tratatu egin eta aurrera! Hau GOIERRITARRA, Goierriko jendearentzat bakarrik esaten dugu!

G.— Errepertorio zabala duzuenek, kantak aukeratzekoan, zein erizpide erabili duzue?

D.— Guk sortutako kantez osa geneza-keen diska, egia esan bagenuen horretarako lain, baina gero konturatu ginen arriskutsuegia zela, jendeak ez bait ditu gure kantak ezagutzen. Beraz, beste berbena-taldean antzera, bertsioak sartu genituen. Haseran abesti martxosoez bakarrik osatu nahi genuen diskoa, baina dantzaldietan jotzen dugunez, geure saioen aurkezpen-txartel moduko bat egin dugu. Gure lau kanta sartu ditugu, bi rock'n'roll, bat poperoa eta bestea, balada bat. Beste bertsioetan denetik dago: jendeak asko eskatzen digun kanta zahar bat, AC/DCren kantu gogor bat, Country bat, hain modan dauden mexikanadarik ez sartzearen eta, noski, "Maritxu..."-ren kanta esitosoa. Kanta hau beasaindar bati zor zaio, berari bururatu zitzaion Lou Reed-en doinu hori letra hau egokitzea; plazetan arrakasta zuen, diskan ere hori itxaroten genuen eta hala izan da!

G.—Ez dizue beldurrik ematen kanta honetaz jendea aspertzea?

D.— Honetaz gure artean hitzegin dugu eta gure asmoa ezagunak izatea da

DRINDOTS: "Berbenen ohitura berrindartzen ari da"

batez ere Gipuzkoa eta Bizkain, gehien Nafarroan jotzen bait dugu. Kanta honekin ezagunak egiten bagara, aurrera!

G.—Sonora Candelaren laguntza ere izan omen duzue...

D.— Estudioan geundela azaldu eta abesti bakar batetan bongoak jotzen lagundu ziguten, horretan gun baino hobeak direlako.

G.—Talde berbeneroa izatez uzteko asmorik?

D.— Guk musikatik bizi nahi dugu eta musika euskaraz eginez bizitzea nahiko

zaila da; bide bakarrenetarikoa oso talde ezaguna izatea edo dantzaldietan jotzea da. Zure gustoko musika eta kantak sar ditzakezu zure diskoetan. Ez dut uste oraingo "Drindots" taldea berbenak utzi eta jaialdiak egiten hasiko denik. <Badi-rudi helburuak beteko zaizkiela, izan ere nongo tabernetan (Goierriko dene-tan!), eta emisoretan ez da entzuten "Maritxu nora zoaz?">

Ane Martin eta Mikel Albisu

91k bildu, ekarri eta eraman duena

Eta beno, oraindik ere ez dugu estreinatu-zaharra, aspaldian horrenbeste zer esan eman duen 92. urtea. Edozein bezalakoa datorrelarik ere urte sonatu hau, esan beharrik ez honen etorrerak aurretik zenaren itzaltzea ekarri duela, eta berarekin batera joan den urtearen inguruan balantze bat egiteko ordua, eta noski guri dagokigunez, musikari dagokionean. Eta lan horretan sartuta, bestelakorik iragarri bazen ere, ez dugu esango urtea emankorra izan ez deniki, izan ere gogoratu behar bait da urte hasieran, 91.aren alegia, Britania Handian **NME** aldizkariko aditu batek aipatu zuena, joan den urtea bilduma lanen urtea izango zela, sormenak izan behar duen etenaldi baten ondorioz.

Eta guk denean ez diogu arrazoa kenduko, nazkatzeko adina bilduma lan izan da joan den urtean eta, **Noches de Blanco Saten, Pet Shop Boys, The Clash, Elton John, Ilegales, Hertzainak** eta horrela zerrenda amai-gabea, baina tira hortik urtea, "bilduma lanen urtean" uztera badago alderik. Izan ere 91ak asko "bildu" du baina bestelakorik ere utzi du urte horrek. Zenbait talderentzat aspaldi merezitako onespina ekarri du, eta horren lekuko **R.E.M.** lauko iparrameri-

karra eta gure artetik berriz, **Barricada** talde naparra, "Por Ins-tinto" lan berriarekin. Biak ere aspalditik musika kontuetan, eta biei ere aspaldiko partez joan den urtean arrakasta.

Bestalde, beren garaian gauza sonatuak egin eta azken urte hauetan babesetik zebiltzan talde eta bakarlarien itzulera ere ekarri du: **Tom Petty and the Heartbreakers, Bryan Adams, Zarama** edota **U2**, azken hauek aparteko lan batekin gainera, maiatzean gure artean izango direnaren zurrumurrua ere zabaldu da. Maiatzean gure artean izango direnak **Mark Knofler** eta bere mutilak dira, joan den urtea ezkerroztik **Dire Straït** taldeko mutilak berriz ere martxan bait dabilta, dena den hauen lan berriak ez du gure gustorako zer aipatu handirik. Aipagarria da ordea, joan den urtean talde eta soinu indartsuek izan duten gorakada, aspaldian Heavy-a eta bere inguruak geldiezinezko gainbehera batetan abiatuak ziran, 91an burua altxatu dute eta noraino gainera, **Guns'n'Roses, Metallica, Skid Row, Extreme, Black Crows..** guzti horretan zer esanik eman dutenak.

Eta aurrera begira, joan den urteak talde berrien soinuak ere ekarri ditu, EEBBtatik, **Nirvana hirukoa eta Natural Selection**

bikotea besteak beste; Europatik berriz **Massive Attack, Urban Dance Squad** eta gure artetik, **Baneteuanba, Hor Konpon eta Balerdi Balerdi**. Aurrerantzean izango da beraz zer entzunik.

91-k gauza bat baino gehiago bildu du, baina gauza bat baino gehiago ekarri ere bai. Eta eraman? Zer eraman du berarekin batera joan den urteak? Zoritxarrez gauza bat baino gehiago. **Bill Graham** ahalguztiduna ez-behar batek eraman zuen, helikoptero istripuz, dirudienez zerruan ez da rokanrola gustoko. Euskal talde baten desagertzea ere jasan dugu, Mutrikitik eta 80. hamarkadan abiatu ziran **Andoni Basterretxea** eta bere mutilak, **Delirium Tremens**) hirukotea. Azken urte hauetan **Iñigo Muguruzaren** talderatzearekin laukote zena. **Delirium Tremens** taldea joan den urteak eraman du, bilduma lan bat ekarri ondoren gainera. Eta noski, joandakoen artean **Freddy Mercury**. Britainia Handiak sekula izan duen erreginarik musikalenaren burua. Azken egunerarte rock izarra izan den gizona, eta berarekin batera joan da **Queen** taldea ere. Beraz, 91. urteak bildu egin du, baina baita ere ekarri eta eraman.

JOSEINA ETXEBERRIA



"Potrotaraino?"

"Potrotaino". "Muerte al violador". "TX"-en grabatua. 1.250 pzta. 2.250 pzta. konpaktak.

Zaila egiten zait "Potrotaino"koen diskaren kritikaren titularra asmatzen. "Goierriko nazkatuen manifestua", "Katastrofearen profetak", "Kaosaren lekuko" edo halako zerbait, agian? Zaila bai, baina ez nekoso, Potrotainoen diskoak lehenengo akordetik engantxatu baitnau.

Eskertzekoa da zurikeriaz, sasi-intelektualez eta humanismo merke ia beteriko inguru honetan sistemak ematen diguna ez dela hain ederra beste norbaitek ere adieraztea. Gaitzerdi. Askok eta askok banean daramagun anarko emegatu horrek izugarri disfrutatu du diskoaren kantuekin.

Soinua, borobila eta indartsua, sofistikaziorik gabe, ironiazko ikututxoekin, Rock Radikalaren esparruan kalitate oneko grabaziotzat joko dutelakoan nago. Bateriaren erritmo azkarrek, eszeptizismo pittin bat darion ahot-sak, saltatzeko eta eurekin kantatzen hasteko gogoia pizten du.


Urteak daramatzate ordiziarrok, eta dagoe-neko ofizio bat ere lortu dute eta badaukate jarraitzaileen "peña" bat ere. Egon, hor dagoen mundutxo marjinal baten oinordekotzat jo ditzakegu. RIP, Basura, Eskorbuto eta beste irekitako ildotik doaz Potrotainokoak eta zentzu askotan garai hartako Rockaren ondorengo legitimotzat har ditzakegu, eskubide guztiak dauzkate horretarako eta.

Letrak sinpleak baina adierazgarriak dira, "zipaioak", poliziak, mozkorrak, bortxaketak, Oria ibaiaren kutsadura, politikarekiko nazka... ahaztutxoak aspaldian, baina hemen aldean, edo hemen gainean ditugun gaiak. Ziur nago kantuak konposatzen eta kantat-

zen kriston ondo pasatu dutela.

Euskaraz ezertxo ere ez (tradiziozko bihurtzen ari dena gure eskualdean), kanten hase-rako derrigorrezko "bat-bi-hiru-lau" leloa kenda! Agian, kanturik lortuena, "zipaio"ena eta gutxien konbentzitu nauena, berriz, diskoaren titulua: bortxatzaileentzat ez dago zigor arinagorik edo legalagorik birjinez, kanpai-jolez eta larrujole-tristedun Herri honetan ala?

J.R. Oria. "Ibai Aldekoa".



Drindots: jai-girorako hobeto

Drindots taldea ezaguna dugu Goierri aldean. Berbena edo dantzaldi ugari eskeini ditzagute gure herrietako plazetan. Oraingoan, askoren haridurarako, estudioetara sartu zaizkigu, IZ-koetara hain zuzen, beren kantak binilo beltzean azaltzearen. Kaki Arkarazo modazko ekoizlearen eskutartean, ez da gutxi!

Argi dago disko honek ez duela asmo handinahirik, eta honela ulertu behar da. Azala bera oso gutxi zaindua dago. Guzti honen gainetik ordea, jaigiroko kanta atsegin sorta honen freskotasuna argia da, batez ere taldearen berezko kantetan.

Orijinalak diren kantak lau dira, "Zu eta ni" amodiozko kanta entzun-erraz bat da, "Sonora Candela" saltsa-taldearen perkusioekin kontatu dute kanta honetarako eta berotasuna lortu dute arreglu hauei esker. "Xuxu", bigarren

kanta propioan, kitarraren indarra sartu nahi izan dute gai sakonago bat egiteko asmoz, ez du ordea indar hori lortzen, Egan edo Akelarre taldeekin duten parekotasuna ukatzen da, bai kanta hauetan eta bai eta bertsioetan ere. "Begieta" kanta da taldearen esanguratsuenetakoa bat. Balada sentibera bat ongi konposatu eta interpretatua.

Bertsioen artean, gehien atentzioa deitu diguna, "Maritxu" kantua da, Velvet Underground taldearen "Sweet Jane" kantari, "Maritxu nora zoaz" kanta herrikoia hitzak sartzeko ideia orijinalaz; zenbait purista musikazalei "sakrilejioa" irudituta bazaigu ere; tabernetan, eta jendeartean noski, arrakasta gehien izan duen kantua da.

AC-DC taldearen "Money talks" "Diru bila" bezala euskaratua edo Ritchie Valens-en "Rock'n Rolling" dira beste bi bertsioen adibide, beti ere kanta ezagun eta kontsakratuen bertsioak, berbena talde bati dagokion bezala. Ildo beretik ere kanta herrikoien birmoldaketak, Txirritaren bertsioak edo eta jira bira bat sartu bait dituzte diska honetan. Dantzarako aproposak, diskarentzako ez hainbeste, agian.

Aipatzekoa Kenny Rogers Country kantariaren bertsio den "Idaho Lazkaon" kantaren istorio okurrentea: "(...) Idaho, Lazkao, ez dira berdin, / hemen ez dago bufalorik, / gehienez ardi latsa ta lizalga gazta, / janez gero jakingo duk, / zein den ona!".

Komentario orokor bezala, arestian aipaturikoa. Asmo handirik ez du disko honek eta taldea dantzaldietara emana dela kontutan hartuta, goraitzekoak da bere jaigirorako kanta atseginen sorta hau. Dena dela, esateko gehiago duten talde asko dago honelako diska bat argitaratzeko aukerarik ez dutenak, eta euskal merkatuan askotan ikusi ditugu jadanik Egan-en urteroko disko puntualak edota Akelarre-ren maila altuxeagoko plastikoa.

Menddi

KORTA mariskeria

Etxeko haztegiak

Menu Berezia (2 pertsona gutxienez)


- Langostinoa - Txangurroa - Almejak - Misera -
- Añares cava edo Antina horratzardoa -
- Postrea, kafea likoreak-

PREZIOA: 3.500 pta. (+ BEZ)

GABIRIA

Tfnoa: 88 71 86

BEGI-FLASH



Argazkilari batzuk goiko irudiaren zortzi eszena desberdin jaso dituzte. Lau dira, ordea, eta lau soilik, irudiaren une berean atereak. Zein dira?

"Enbido"tik hartua "Elkar"en baimenarekin

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

ALKAIAGA Taberna

- ✓ Pintxo askotarikoak
- ✓ Txokolatea txurroekin
- ✓ Ogitartekoak

Urdaneta, 18 behea

ORDIZIA



Marisol Legorburu,
ordiziar pintorea

Foto: Dioni Santoyo

Erretratuak egiten eman zituen bere lehen pausoak, Unibertsitatean, Bilboko Arte Ederretako Fakultatean, abstraktuaren lilurak bereganatu zuen arte. Ez du estilo kontuetan gehiegi sinesten. "Artista den edonork sortzaile behar du izan. Buruan darabilkizun hori sentitzen duzun eran eman behar duzu aditzera, estiloari begira egon gabe", esan zion Mikel Leundari.

Aurrezki Kutxak antolatzen zituen erakustetatik hona, luzea izan da Marisolek arte mundu zailean urratu duen bidea. "Goiart 88" taldearen sorreran ere bultzatzaileetako izan zen. "Hura esperientzia interesgarri bezain laburra izan zen. Orain urte batzuk, 88an hain zuzen ere, Goierri bailarako zenbait artistek, bizi genuen itxitasuna apurtu asmoz, elkar ezagutzea bultzatuko zuen taldea sortzea erabaki genuen. Gauza interesgarriak egin bagenituen ere, zenbait gorabehera tarteko ez zuen gehiegi iraun".

Muralen alderdia jorratu du geroztik Marisolek, gaien eta lan egiteko eraren aldetik dagoen desberdintasuna nabaria izan arren, "honetako lan bat egitean perspektiba eza da izaten dudana arazo larriena, aldamioren gainean zaudenean ezinezkoa bait da margotu beharrekoaren ikuspegi orokorra izatea. Bestetik, erabili ditzakezun gaiak nahiko mugatuak izaten dira orohar".

28 urte beteak ditu eta gogor ekin dio lanari, margotzen duena erakusteari batez ere. "Egiten ari naizena jendearengana eramateko unea iritsi delakoan nago; orain izan ezean inoiz ez bait dut pausu hori emango. Beraz, izango dugu bai aurrerantzean, lanean dabilen belaunaldi berriaren adibide bat besterik ez den margolari gipuzkoar honen lanak dastatzeko aukera.



Joxe Mari Mujika
idiazabaldarra
Arrasate euskalduntzen

X. Elgezabal

Joxe Mari Mujika idiazabaldarrak 54 urte ditu, Getxon jaio zen, gerra garaian beren aita-amak han baitziren, halaberrez.

<Lovainan (Belgikan) Industri Soziologia ikasia da (bere emaztea ere soziologa izan behar du) eta aspaldi joana da Mondragoera bizitzera. Ez du horratio bere herria ahazten eta maizetan egiten du bixitatxoren bat. Lurgintza kooperatiban ibilia, Fagorreko erosketa-lanetan dabil gaurregun. Andoni Eskisabel ordiziararen hitzetan, buru argia izan behar du eta berorixe ari da erakusten AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) Kultur Elkartearen Lehendakariatzatik. Elkarte horrek sortu ditu "Arrasate Press" eta "ATB-Arrasate Telebista" besteak beste. Arrasate mailan Euskal Herri osoan goraiatua izan den hitzarmen bat sinatu zuten bertako erakunde gehienek. "Gure erroka da enpresek euskaraz lan egiteko konpromezua hartzea bultzatzea" eta "Arrasaten euskararen aldeko joera pizten ari da" bezalako bere esaldiak jaso ditugu guk prentsatik.

Arrasate Press" edota "ATB" bezalako proiektuak bultzatuko balira hemen. Horrelako hitzarmenen bat sortuko balitz gure Goierri honetan, gu mutilak!

Xalbador Garmendia **zaldibiar idazlea**

Xalbador Garmendia euskal idazlea 1932. urteko irailaren 20an jaio zen Zaldibian. Erromako Unibertsitatean Teologiako ikasketak egin zituen. Euskaltzaindiako kidea. Zenbait aldizkaritan kolaborazio lanak egin zituen, "Herria"n esate baterako. Antzerki-antolatze lanetan ibilia da Goierri. 1964.ean Ondarroan lehenengo saria irabazi zuen "Historia triste bat" antzerkiarekin. Lan hau Donostian antzeztu zen 1969.ean eta "Euskal Elerti 69n" argitaratua. 69.ean, bai eta ere, argitaratu zuen "Beltza!

Beltza!" ipuia, "Egan"en, 1990.ean euskara batuan birargitaratua izan dena, GOIERRITARRAREN 11.ean dakarrenez. Arantzazuko euskara batuaren kongresuan garrantzizko papera jokatu zuen. "Egin" egunkariko itzultzaile da gaur egun eta Anoetan bizi da.



Xabier Zeberio, itsasondoa
bertsolari umoretsua

Orain gubi jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, askok uste zutena baino lan hobea egin du Xabier Zeberio itsasondorak. Ez zitzaion asko falta izan finalean ere egoteko, ezin bait da ukatu bertsozaleak bereganatzen jakin ez duenik, bere umorea dela medio. "Gipuzkoako Mañukorta" ere deitu izan dio baten batek. "Tentatzen nauten guztik, tiroa espero die nigandik", aitortu zion aspaldi Itsasondoko "Kantillape" Aldizkariari.

Xabier Zeberio 1949an jaio zen eta eta "hamar bat urterekin hasi nintzen lehen bertsoak kantatzen", deklaratu zion Rosa Amundaraini. "Garai hartan ez zegoen artean magnetofonik eta bertsoak entzun nahi zituenak aurrez-aurre eta zuzenean entzun behar zituen".

Jaioterrian kantatu zuen lehenbiziko aldiz, ordura arte inolako txapelketetan plazaratu gabeko beste 12 bertsolariarekin batera. Ordizian 3. eta 4. postuak lortu zituen eta bai eta garai hartan Idiazabalen egiten zen Zepai Txapelketa famatu hura 74.ean. Beste bi txapel ere baditu, Gabiriko Osinalde Elkarteak eta Añorgako Orixek emanikoak, besteak beste.

Zeberio I.-ak umore kutsuko izaera alai du eta badu hori frogatzeko anekdota bat: "Matximentan gauean kantatu ondoren, hurrengo goizean batera erretiratu gabe joan nintzen Añorgako Txapelketara, nahiko umore onean. Goizeko saioko bertsoak onenaren saria neuk eraman nuen, gai bitxi batekin gainera, "bertso bat zure sudurrari". Gaur egun igeltsenitzan aritzen da eta Ordizian bizi diren hiru seme-alaben aita dugu.



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00

Kale Nagusia, 20

BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)



Lierria
Tlf.: 80 16 99

20214 MUTILOA

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
- BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO



SOLOZABAL

AUTOESKOLA

PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
 - Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan
- Tfnoa: 88 83 31



ERGOIENA AUZOA

ATAUN




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



- Urdaiazpiko eta hestekien banatzailea
- Liburu eta konpakto denda


Urdaneta, 52 Tfnoa.: 88 06 40 ORDIZIA

Irrati-Telebista

Telebista eta irrati dira masa-komunikabide medio hoberenak. Hasera-hasera tik irabazi zuen leku printzipal bat telebistak eta nahiz eta goierritar asko eta askok telebisorik ez zeukan duela ia hamar urte arte (impermeableak omen ginen espainiar kulturarekiko garai batean goierriko abertzale eta euskaltzaleok), geure etxeetako ohorezko leku batean daukagu gaurregun. Guztiz permeable, blai eginda gaude orain. Are gehiago, etxe askotan telebista bat baino gehiago daukate.

Jende bat "letren" zuloan sartu zen txuribeltza zenean (nahiz ez hozgailurik edukiki) eta berriro sartu ziren zulo handiagoan kolorezkoa erosterakoan. Guk ere erosi genuen, euskaldunok azkenean telebista ere bagenuela eta. Euskal Telebista bat eta gero bigarrena jarri zizkiguten. Iada espaiñoladak gustora ikusten ditugu. Euskal Telebista horiek (ez euskal eta ez telebista direnak) ohitu gaituztelako, behar bada. Azken batean, teknikoki eta eskaintzen duten produktuak itxurosoagoak dira kate espainoletan.

Epelkerian ibiltzea dela deritzogu programa baten edo besteren audientziak 5 puntu gora edo behera egin dituela esatea. "Bat eta bi", "Hau da A.U.", "Funtzioa", eta gixakoek parre egiteko gogo gehienak kendu zizkiguten. "Sustrai",



"Hemen eta Munduan", Amatiño-eneakoa eta holakoak: garai bateko "No-do" gogaikarriak gogoratzen? Xabier eta Piterkeriak jasan ondoren Ozores eta Paco Martinez Soria maitatzen ikasi dugu, lehenago ezin-ikusia genienean. Espainiako Ligako partiduak erretransmititzeak ez dio mesederik egiten euskalduntasunari, alderantziz baizik. Akatsak oinarritzkoak dira. Gu bezalako gurasook ezin diegu sinestarazi hainbat gauza gure umeei aurrean EITB dutela. Euskal Kulturarik ez denez, ba, bi-

ba Erdal Kultura!

Gure bizitzako ordu asko jaten dizkigu telebisiok eta nahi genukeena baino ordu gutxiago lo egiten uzten digu. Geure umeei programazio ordu gehitxo irensten dituzte eta jatorduetan ezin da hitzegin dagoeneko. Telebista ikusi bakar-bakarririk.

Ezaguna da irudi batek mila hitzek adina balio duela. Hortik agian, telebistaren arrakasta. Baina, azkenaldian, pertsona multzo geroz eta handiagoak, telebista utzi eta irrati entzuteari lotzen zaio. Duen entzulegoak hobetuarazi beharra eragiten dio irratiari: emisora gehiago dago, bati-pat Frekuentzia Modulatuan (F.M.) eta programen kalitatea hobetuz doa, hala nola, berri-zerbitzuak, musika, kultura, elkarrizketa zerbitzuak, etab. Igortzaileen konpetentzia dela eta, zer esanik ez.

Irrati-Telebisten garrantzi izugarria zeri zor zaion?: jende askorengana heltzen direla eta munduan gertatzen denaz berehala informatzen gaituztela. Halere, jendea ohartu beharko litzateke zein inportantea den "dena ez tragatzea" eta jakin dezagula zeintzu diren programa interesgarri eta formatiboenak.

(Zaldibiako guraso kezkatu pare bat)

Zine-kritiko

Begi beltzak

"Ojos negros". Zuzendari: Nikita Mikhalkov. Musika: Francis Lai. Antzezleak: M. Mastroniani, S. Mangano, Marthe Keller, Elena Sofonova.

Euskal Herriko Zinemetan eta Bideo-klubetan.

XIX. mende amaieran itsas ontzi batetako jangelan, Pavel errusiarrak argazki bat begiratzeko ari den Romano italiar barkaria ezagutzen du. Errusian izana dela komentatzen dio Paveli. Romanok bere bizitzaren xehetasunak jakinarazten dizkio.

Elisa emakume aberatsarekin ezkondua, kolpe zorrik ez du jotzen. Maitalek nonahi eta gezurra adiskide. Etxean estutasun ekonomikoak dituzten unean bainuetxe batetara doa. Bertan, Anna errusiar gazte xarmanta eta honen txakurtzua topatzen ditu. Anna lotsatia da bai, baina ezinezkoa zaio Romanoren hatzaparretatik ihes egitea. Egindako "bekatuaz" lotsatuta Errusiara itzultzen da Anna. Romano, zeharo maitemindurik, honen bila abiatzen da Errusiara.

Begi beltz" errusierako "Occi cionnie" esan nahi du. Chejoven istorio labur batetan oinarritzen da. Istorioko heroiak, bere bizitzari buruz aritu baino, kanta baten ahapaldiak errezipitatez

nahiago du: "Begi beltz, begi apasionatuak, oso triste nengoe-larik, ezagutu ginen". Nikita Mikhalkov-ek giro "Chejov-iarra" sortu nahi izan zuela adierazi du. Anna gazte errusiarra haren "Damatzoa txakurtzoearekin" idazlanetik aterea da.

Atzerrian burututako lehen filma du hau Mikhalkov-ek. Italiar errealtateari buruzko gaiak eskaini zizkieten lehenik, baina Nikitak ezezaguna zitzaion gizartea isladatzatzeko gai ez zuen ikusi bere burua. Filma italiarra da eta protagonista nagusia Marcello Mastroniani italiar antzezleri maitatua. Marcellok Cannes sari nagusia jaso zuen 1987.ean pelikula honetan egindako lan bikainagatik. Silvana Mangano, Passolini eta Visconti-ren aktorea, hamairu urtetan filme bakarra egin ondoren, Mastronianiren emaztea da pelikula honetan.

Filma saritua izan da eta arte, industria eta ikuskari gisa uztartutako zine on baten eredu dugu.

Zinikoak



MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50

88 23 54

88 11 92

88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA



iRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

RAIMON MUSIKALA

SANYO BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRETA, Z/G.

Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

GURPIL
BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03

20200 B E A S A I N



ZABALE

OKINDEGIA

DIETETIKA

Santa Maria, 6 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi

tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

Ondo jateko... ...Rubiorena Jatetxea

Beasaingo "Rubiorena" jatetxe atseginen benetako sukalde, bertako produktuak ahal dela eta sasoian sasoikoak, eskaintzen dizkigute. Konplikaziorik gabeko sukalde, errekaratu gabea, labea darabilte asko, saltza arinak, ahalik eta grasa gutxi.

Orain dela 10 bat urte ireki zuen Juanito Rubiok jatetxe hau eta sonatua izaten jarraitzen du. Bera perito kimikoa zen, ez zetoarren sukaldaritza eskola batek beraz; soziedade-giroan trebatua, autodidaktatzat du bere burua, "jana ematen duen pertsona, ahalik eta hobetoen". Ez da goserik itengo horra doana. Ase ere, gauza finekin, "eskua"rekin egiten baitira gauzak hor.

Hasierakoetan zer nahi, arraikia eskaintzen dute gehiago Kartan, jendeen eskaera medio, apika. Legatz solomo eta kokotxak, kokotea labea, mihiarrain,



txipiroiak, itsasapoak, izokinak... Ez diote uko egiten edozein arrain moztari: txitxarroa, bakailu freskoa ere jartzen da, moduan eskaintzeko modukoak. Arrain-kalitatea garestitasunak bakarrik ez bait du neurtzen, freskotasunak balio du.

Haragietan, klasikoaz gain

(txekorra, arkumea...) lan asko egiten dute ahaten produktuekin, ahate izterrak, bularrak, gibela, modu askotara prestatuta: konfitta, magret, e.a. Hemen ez da horietarako ohitura handirik, baina sartzen ari omen da.

Postreak, berriz, denak etxean eginikoak. Erreposteriaz aparte,

eskaintza zabala dute eta, adibidez, mami garaian ez dira mugatzen mami hutsera, baizik eta mami, intxaur, ezti eta konpotarekin kopa berezi bat egingo dizute. Biskuit bat ere egiten dute, piku eta intxaursaltsa daramana.

Oraindik artesautza mantentzen den "Rubiorena" jatetxean jendeak dituen posibilitateetara moldatzen badakite. Koadrilei, zenbat gasta dezaketen galdetuko diete eta 3.000 pzta.n jarri dezakete Degustazio Menua. Kartako otordua 4.000 pzta. inguruan dabil, edariak barne. Eguneroko bazkaria, 825 pzte-tan.

Asko manipulatua gabeko produktuak, zapore guztia gordetzen dituzten janariak mahaian nahi badituzu, badakizu!

Rubiorena Jatetxea:
Zaldizurreta, 7. 885760.
Beasain

Bertsoak

INGELESARENAK

1

Ume batzuk kezka bat digute ekarri inglesa dela eta omen dabiltz larri "I am very bicycle" esanez elkarri. Horregatik bertsoak nahi ditugu jarri guraso askorentzat eskarmentagarri.

2

Eskolek badituzte beraien programak han bere lekua du inglesak ta danak baina ume gaixoez badituzte lanak eskolaz kanpo hartuz

egundoko zamak "inportantea dela esaten du amak".

3

Guraso modernoak asko daude bertan inglesa sartu nahian seme alabetan. Proposamen bat daukat nik bertso honetan nola inportantea den bene-benetan matematika eman larunbat goizetan.

4

Gurasoak zoratu dira hizkuntzekin inportantea zer den

ezin dute jakin.

Umeek protestari nahi diote ekin: "nahiko lan badaukagu klasekoarekin, kokoteraino gaude inglesarekin!".

5

Orain arte ez zena batere arrunta hizkuntz-akademiatan rekluta hainbestek inglesa nahi buru berotuta. Anormala normala dela sinistuta zer nahi dugu mintzatu eta zer izkuta?.

6

Inglesek lotsarik ez ingelesez hasteko nahiko dute munduan lasai ibiltzeko, ta guk berriz beste bi ikasi beharko hizkuntzaz gizakiak alkarren menpeko zapaldu behar al da modernizatzeko?

7

Erreminta bat dugu hizkuntza bakoitza erabiltzen den sega jartzen da zorrotza erabiltzen ez dena herdoi ta amotza gure larre honetan

sega fin arrotza horrenbestek zorrotzen ez al gera lotsa?

8

Gurasoak ez izan moderno usteko ikastearen puruz burua nahasteko. Izango da astirik gauzak ikasteko haurrei baimena eman inglesa uzteko ume diren artean trankil jolasteko!!

Bertso School of Leintz
(Leintz Baitarako Bertso-Eskola)

BEASAIN euskaldun



FOTOETXE

egin dezagun



EUSKARA-BATZORDEA
BEASAINGO UDALA